

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko martxoaren 19a > Astelehena > III. urtea > 138. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Sekula eraikitzen amaituko ez den proiektua da demokrazia"

Igor Ahedo
Zientzia Politikoko irakaslea > 09



G2a

Arrasaten kultur etxea inauguratu dute > 23

DIBORTZIOA

Araudi berriarekin, dibortzio kopurua asko hazi da > 02-03

ESKUBALOIA

Bizkaiko txapeldunari irabazi egin dio Bergarako taldeak > 19

KORRIKA

Korrikari ongietorria emateko ekintzak izango dira > 24

KOMUNIKABIDEAK > GOIENAREN ETA HAMAİKAREN ARTEKO HITZARMENA

Goiena eta Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea, elkarrekin

HITZARMENA Lankidetzaren hitzarmena izenpetuko dute bi enpresek gaur, astelehena, Bilboko Kafe Antzokian

DIGITALIZAZIOA Modu digitalean emititzeko baimena lortzeko aurkeztuko da Goiena, Hamaikaren lehiarik gabe

SAREA Saioak ekoizteko, trukatzeko edo salerosteko, publizitatea lortzeko... sare baten egongo da Goiena > 04

ANTZUOLA > POLITIKA

Pilar Etxaniz, alkategai

Pilar Etxaniz da Aralar-Ezker Batua-Zutik koalizioko zerrenda-burua > 14



Pilar Etxaniz.

GOIENKARIA

GIZARTEA > PROTESTA

AHTren aurkako agerraldia

Antolatzaileek balorazio ona egin dute zapatuan Arrasaten AHTren aurka egin zuten kale agerraldiaz, jende kopuru aldetik -1.500-2.000-; hala ere, ibarreko eta, batez ere, Arrasate aldeko behar baino jende gutxiago joan zela diote.

Bihar, martitzena, batzartuko dira ekintza gehiago antolatzeko. > 05

Mikel Elgezabalek irabazi zuen Oñatiko Duatloia

Deskargako igoerako azken metroetan egindako erasoan lortutako errentari esker irabazi zuen Mikel Elgezabalek. Abantaila hari bukaeraraino eutsi zion. Hala, lehena izan zen helmugan, 1:40:22ko denbora eginez.

Bigarren eta hirugarren tokietan, Laurent Galinier eta Patxi Urizar sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Halaber, emakumezkoen artean onena Virginia Berasategi izan zen. > 20-21



IRABAZLEA Argazkian, Mikel Elgezabal, Oñatiko plazako helmugara iristen.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

ETXEBIZITZA > ETXEBIDE

Bikoteek errazago lortu ahal izango dute etxea Etxebiden

Aurrerantzean, Etxebiden izena ematen duten bikoteek errazago lortu ahal izango dute etxebizitza, Etxebizitza eta Gizarte Sailak onartu berri dituen neurri batzuei esker. Neurri horiek zozketa guztietan aplikatuko dituzte hemendik aurrera.

Etxebizitza babestuaren zozketetan, elkarbizitza-unitateei,

tamainaren arabera, zenbaki bat edo gehiago ematea onartu berri dute. Horrez gain, bikotekide bakoitza udalerrri batean erroldatuta egonez gero, bi zenbakirekin parte hartu ahal izango dute, bakoitza erroldatuta dagoen udalerrian egiten diren zozketetan.

Neurrion berri ematen, gutunak bidaltzen ari da Jaurlaritzak.

KIROLA > MENDIZALEAK

Gala baten batu ziren mendizaleak Elgetan

Euskal Herriko Mendi Federazioak 2006. urteko jardueran onenen sariak banatu zituen egubakoitzean Elgetako Espaloia antzokian. Tartean, Patxi Basauri alkatea saritu zuten. > 15

Barruan, Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia posterra





HAUSTURA Adituen esanetan, Espainian, hiru minututik behin bikote bat hausten da; 2010erako, ezkontza bakoitzeko, bikote bat hautsi egingo da.

EDUARDO MENDES

GIZARTEA > DIBORTZIOAK

Bikoteak hausten direnean, dibortzioa nagusitzen da banaketaren gaineratik

GORAKADA Bikote banatzeak %87 jaitsi dira, eta dibortzioak, %152 igo, 2002tik 2006ra bitartean

PROZESUA AZKARTU Orain, badago banatetik pasa gabe dibortziatzeko aukera; horrek tramiteak arintzen ditu

ARRAZOIA Dibortziatzeko, nahi izatea nahikoa da orain; baina argumentu nagusia elkarbizitzaren desgastea da

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Ezkontzak legezko bikote izateko bidean ipintzen du norbana-koa; banatzeak edo dibortzioak, berriz, bikotekideak banako izateko bidera bueltatu. Ezkontide-arengandik epai legal baten bidez bereiztea da dibortzioa. Ezkontzak sortutako loturak deuseztatu eta, nahi izanez gero, berriro ezkontzeko aukera sortzen da horrela.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren datuei erreparatuta, ikus dezakegu, azken bost urtetan, 2002tik 2006ra, Euskal Autonomia Erkidegoko Familia Epai-

tegiatan 30.906 prozedura sartu direla, eta horietatik %56 dibortzioak eta banatzeak izan direla.

Familia Politikarako Institutuak emandako Espainiako datuen arabera, 1995etik 2005era bitartean, %81 igo da familia haustura; horietatik %91, dibortziatuta, eta %9, banatuta.

Bestalde, Estatistika Institutu Nazionalak dio, 2005ean, ezkontutako 141.424 bikote hautsi zirela Espainian; aurreko urtearekin alderatuta, %9,82 gehiago.

LEGEAK, KOPURU ALDAKETA

Hala ere, 2005ean dibortzioa lortzeko tramiteak arintzen dituen

legea indarrean jarri zutenetik, behera egin du banatzen diren bikoteen kopuruak; dibortziatu direnenak, aldiz, gora. 2002tik

2006ra artean, %87 jaitsi dira banaketak, eta dibortzioak, %152 igo.

Dibortzioaren gaineko legea 2005ean indarrean sartu artean,

%60 banatzeak ziren, eta %40, dibortzioak. Baina iazko datuei erreparatu besterik ez dago aldaketa sekulakoa dela ikusteko: banatzeen proportzioa %7,3koa da, eta dibortzioena, berriz, %92tik gorakoa.

Lege berriarekin, dibortzioa lortzeko izapideak erraztu egin dira. Esaterako, lege horri esker, ez da beharrezkoa bikotea banatzea dibortziatu aurretik. Pauso hori laburtuta, prozedura arindu egiten da; baita horrek ekarriko lituzkeen gastuak merkatu ere.

Larraitz Ugarte bitartekari-tza lanetan jarduten duen abokatu oñatiarrak azaldu digu horren

Banatzeak eta dibortzioak EAEn

	BANATZEAK			DIBORTZIOAK			GUZTIRA
	ADOS JARRITA	AUZIA	GUZTIRA	ADOS JARRITA	AUZIA	GUZTIRA	
2002	1.401	421	1.822	739	440	1.179	3.001
2003	1.571	605	2.176	857	481	1.338	3.514
2004	1.607	634	2.241	967	489	1.456	3.697
2005	953	467	1.420	1.687	1.014	2.701	4.121
2006	171	66	237	1.961	1.019	2.980	3.217
GUZTIRA	5.703	2.193	7.896	6.211	3.443	9.654	17.550

"Lege erreforma beharrezkoa zen familia-auzien alperreko zorigaitza izaera saihesteko"

"Ezkonduta egoteak dibortziatuta egoteak baino estatus sozial hobea ematen du"

berri: "Lehen, dibortziatu aurretik, urtebetez banatuta egotea derrigorrezkoa zen; behin betiko haustura ezin zitekeen hasieratik egin. Orain, badago aukera dibortziatzeko banatzetik pasa gabe. Lehen, banaketa proposatzen zuten harremana birplantatzeko, eta bueltatzeko aukera moduan; ikuspuntu konterbadoretik, matrimonioa salbatzeko".

Justizia Sailak dio lege erreforma beharrezkoa zela "familia-auzien alperreko zorigaitza izaera hori saihesteko".

ARRAZOITU BEHARRIK EZ

Tramiteak azkartzeaz gain, dibortzioak nagusitzeko beste arrazoietako bat da orain nahikoa dela ezkontideetako batek nahi izatea dibortzioa eskatzeko. Hau da, ez da arrazoitu behar, ezta adostasunik egiaztatu behar ere. Larraitz Ugartek ere argi esan digu hori: "Bestalde, lehen arrazoitu egin behar zuten zergatik banatzen ziren bikotekidearengandik; bikoteak alkoholarekin edo jokoarekin arazoak zituelako, bietako batek bestea jotzen zuelako... Gaur egun, nahikoa da bietako batek bikotea utzi nahi izatea".

Ondorioz, adostasunezko dibortzioak gehitu egin direla ere esan digu abokatu oñatiarrak, eta abokatu askok ere hori gomendatzen dutela: "Adostasunezko dibortzioa gero eta kasu gehiagotan izaten da. Horrek ere tramiteak asko errazten ditu. Bikoteko bi parteak ados ipintzean datza. Gainera, abokatu berekin egin daitezke paperak, eta, horrela, dirua aurrezten dute. Egun batean joan beharko da bikotea epaitegira, aurrez esandakoarekin ados daudela baieztatzea, eta gero, sententziaren zain egotea baino ez da. Horrela, kasu batean, hiru edo lau hila-betetan lortuko litzateke dibortzioa. Auzi bidez eginez gero, liskarrak bideratuta, urtebetetik gora beharko litzateke dibortzioa lortu arte".

BESTE BERRIKUNTZA BATZUK

Denbora gutxitzea eta arrazoiak eman behar ez izana ez ezik, legeak ekarri ditu beste berrikuntza batzuk ere; kostua, esaterako. Lehen, gutxienez, 2.500-3.000 euro ordaindu behar ziren adostasunezko dibortzioa lortzeko; orain, gutxi gorabehera, erdira jaitsi da kostua. Adostasunik ezean, dibortzioaren baldintzak zehazteko, epaiketa izaten da eta, orduan, 2.000 euro baino gehiago litzateke ordaindu beharrekoa.

Bestalde, bikotea elkarrekin bizitzera, elkarri fidelak izatera eta elkar laguntzera behartzen zuen artikulua ere aldatu egin da. Lege berriak behartzen ditu etxeko lanak partekatzea eta euren kargu dituztenak zaintzea.

Diru kontuak ere dibortzioaren ondorio zuzenak dira. Hone-la, bikotekideetako batek, banatutakoan, ezkontuta zeudenean baino egoera ekonomiko okerragoa badu, bestearekiko konpentsazio bat jasoko du. Pentsio hori denbora tarte jakin baterako izan daiteke, edo baita mugagabea ere; eta ordainketa bakarra gertatuko aukera ere eskaintzen da.

Gainera, seme-alaben elikadura-pentsioa ordaintzera behartuta dagoen gurasoak bere egin-beharra betetzen ez badu, Gobernu arduratuko da gastu horietaz, pensioak bermatzeko fondoaren bidez; konpentsazio-pensioak ere hortik ordainduko dira, dagokionak pagatu ezean.

SEME-ALABEN ZAINTZA

Lege berriak gurasoek zaintza partekatzeko aukera ere ezartzen du. Gizarteak eskatu arren, aurrez, Espainiako estatuan ez zegoen horrelako aukerarik. Adostasunik ezean, eta ezkontideetako batek zaintzako aukera eskatuko balu, epaitegietan zaintza partekatua ebatz daiteke, betiere adin txikikoen mesedetan.

DIBORTZIATZEN DIRENEN PROFILA

Euren abokatu kabinetean ikusten duenaren eta ezagutzen dituen beste kasu batzuen arabera, Larraitz Ugartek esan digu adin guztietako bikoteak dibortziatzen direla: "Asko ikusten dira 37 urtetik beherako bikoteak, orain ez dagoelako lehen zegoen bikotea "agoantzeko" kultura hori. Bai lehen eta baita orain ere, hausturarako arrazoia berdina da: elkarbizitzak ekarritako desgastea eta maitasuna amaitzea. Maitasuna amaitzeko arrazoiak asko izan daitezke: mendeotasunak, matxismoaren ondorioz elkarbizitza ez egitea... Kasu gutxitan gertatzen da dibortziatzea bikoteko bat beste batekin joan delako; horra iristerako, gehienetan, aurretik apurtuta dago bikote hori. Bestalde, 50 urtetik gorakotetan ere ikusten da banatzeko joera. Emakume askok, behin seme-alabak hazitakoan, eta bikotearekin gustura ez badaude, dibortziatzeko erabakia hartzen dute. Izan ere, seme-alabak tarteko direnean, pisutsuagoa da erabakia hartzea".

Ikusi duen beste gauza bat da emakumeek ematen dutela, gehienetan, dibortziatzeko lehen pausoa. "Emakumeak familia-

rekiko lotura estuagoa du. Gizonezkoek bizimodu eroso dute. Emakumeek gogor lan egiten dute familiarengatik, baina, era berean, zorrotzagoak dira familia eredu horrekin: gehiago eskatzen dute, eta familian pozik bizi nahi dute. Gainera, afektibotasunari emakumeak garrantzi handiagoa ematen dio. Gizonezko asko ez dira saiatzen euren aldetik ezer jartzeko bikote harremana ondo joan dadin, baina, gero, dibortziatzeko trabak ipintzen dituzte. Horretan, estatus sozialak pisu handia du oraindik, eta ezkontuta egoteak estatus sozial hobea ematen du dibortziatuta egoteak baino", esan digu Larraitz Ugarte abokatuak.

ERABAKI ZAILA

Gizarteak dibortzioa gero eta hobeto ikusten duela gaineratu digu: "Garai batean, sekulako ausardia behar zen dibortziatzeko, baina, gaur egun, matrimonioa ez da, lehen bezala, instituzio moduan ikusten. Hala ere, dibortziatzeko erabakia hartzea zaila izaten da, eta jendeak erabaki hori hartzen duenerako, ondo pentsatuta dauka. Aurretik, aukera asko ematen dizkiote elkarri bikotekideek, familia terapiak egiten dituzte...".

Hobeto ikusita egon arren, gure ibarrean, dibortziarako pauso hori emateko, oraindik erreparoa handia dagoela esan digu Larraitz Ugartek: "Debagoienan,

herri txikiak izanik, erreparoa handia izaten da. Besteek zer esango duten horren beldurrez, inguruko esamesen mende bizi gara askotan".

Horri aurre egiteko bide bat familia bitartekaritzarena dela esan digu. Horretan jarduten du, besteak beste, Larraitz Ugartek, bere lankide Maider Morraskin. "Familia bitartekaritzari buruz, gero eta gehiago hitz egiten da eta, beste erkidego batzuetan oso hedatua dagoen arren, gurean ezagutza oso urria da, eta ez da sortu horren inguruko kulturarik. Gurean, oraindik, ez dago bitartekaritzarako zerbitzu publikorik, baina, pixkanaka hori ere sartuko da ibarrera".

Dibortzio aseguru, seme-alaben ongizatea bermatzeko

Hiru minututik behin, bikote bat hausten da, Familia Politikako Institutuaren arabera, eta aurreikusitako, 2010ean, ezkontza bakoitzeko haustura bat izango dela.

Estatistiketatik harago, dibortzioaren ondorioak daude: seme-alaben custodia eta elikadura-pentsioa, esaterako. Banatutako gurasoen elkarrekin salatu dute ordainketa horiek ez direla egiten. Bien bitartean, aseguru-poliza berri bat merkaturatu dute, ordainketa horri aurre egiteko. Horrela, ziurtatu egingo litzateke seme-alabek pensioa jasotzea, independentzia lortu bitartean. Elikadura pensioa aita edo amaren soldataren %20-25 (300 euro) izan ohi da, batezbeste. Pentsio konpentsatzailea hiler maila ekonomiko hobea duen gurasoak ordaintzen duen kopurua da.

Ordaindu behar duen gurasoa giltzen bada, edo elbarri zein langabezia geratuz gero ere, poliza horrek estaliko luke beharra. Hala ere, langabezia kasuan,

urtebeteko muga legoke, eta langabezia-sariaen osagarri izango litzateke, pensioei aurre egiteko.

MADRILGO ETXE BATEK BAKARRIK

Poliza berri hori Madrilgo aseguru etxe batek baino ez du eskaintzen, oraingoz. Hala ere, Estatuko edozein lekutatik egin daiteke kontratua.

Kostuei dagokienez, ezberdintasunak daude, seme-alaben adinaren eta ordaindu beharreko pensioaren arabera, baina urteko 300 eta 800 euro bitartean dago prezioa.

Adituek uste dute bezero gehienak gizonezkoak izango direla, gehienetan custodia emazteari ematen diotelako. Hala ere, joera aldatzen ari da, partekatutako kustosari esker. Era berean, pensioak ez ordaintzea uste baino ohikoagoa dela diote: pensioen %20 inguru ez da ordaintzen norbere borondatez.



Deusto Unibertsitatea | Donostiako Campusa

Deustuko Unibertsitatea Arrasaten



Etor zaitez gu ezagutzera

ESTE-ESIDE. Titulazio Bikoitza: Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)

ESTE. Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura (5 urte) + Espezialitateko Masterra

Giza Zientzietako Lizentziatura: Komunikazioa. HUCO (4 urte)

Giza Zientzietako Lizentziatura: Enpresa. HUEM (4 urte)

Turismoko Diplomatura (3 urte)

Gizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

Informazio saioa (Mesedez baieztatuta)

Eguna: Martxoak 21, asteazkena
Tokia: KULTURATE Kultur Etxea
Azoka kalea,1
Arrasate / Mondragón
Ordua: 19:00etatik 20:00etara.

2007-2008 ikasturterako Sarrera Eskaerak aurkezteko epea zabalik

☎ 943 326 308 - 943 326 600
e-mail: infoacad@ud-ss.deusto.es
www.infodonestia.deusto.es



GOITB Hamaika taldearekin lan egingo du Goienak, baina bere komunikabideek, izaerak, izenek... berdin-berdin jarraituko dute.

IMANOL SORIANO

di-da batean

Leire Kortabarría

Indarrak batzea, bide onena

Beste egoera askotan gertatzen den moduan, euskarazko tokiko telebisten kasuan, helburu berbera daukaten asko egotea euskararen kalterako da, gehienetan. Hala, Debagoiengan helburu berbera eta oso eduki antzekoak -tokiko telebista izateak mugatu egiten duen aldetik- dituzten bi telebista egotea arazoa izango litzateke, emititzeko baimena lortzeko ulean. Horregatik, ona da Goienak eta Hamaikak indarrak batu izana: hala, baliabideak, esperientzia, historia... denek bat egingo dute, Debagoiengan eta euskararen onerako. Denborarekin ikusiko dira emaitzak, eta onak izango direlakoan nago.

KOMUNIKABIDEAK > GOIENA-HAMAIKA HITZARMENA

Hamaika Tebista Hedatzeko Taldearekin hitzarmena sinatuko du gaur Goienak

Hainbat abantaila izango ditu Goienak, produktuak ekoizteko, trukatzeko, saltzeko...

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Hamaika Tebista Hedatzeko Taldeak elkarrekin lan egingo dute aurrerantzean, eta konpromiso horri baiezta emango diote bi aldeek gaur, astelehena, hitzarmena izenpetuta, Bilboko Kafe Antzokiko ekitaldi baten, 11:30ean. Goienak bezala, Tokiko elkarteak osatzen duten beste lau telebistak nork bere hitzarmena sinatuko dute.

Goiena lekuko telebista sustatzeko talde baten sartzen da, baina bere izaera, izena... gordetzen ditu, hau da, ez da Hamaikako kide bihurtzen. Hainbat abantaila izango ditu: besteak beste, eskualdean modu digitalean emititzeko baimena lortzeari begira, Hamaika ez da Debagoiengan aurkeztuko; bestetik, epe luzera, bere programazioa osatzeko aukera handiagoak izango ditu, baita berak ekoiztutako programak trukatzeko edo saltzeko ere.

EUSKARAZKO TELEBISTAK BATU

Adostasuna lortzeko negoziatioek luze jo dute. Goiena helburu jakin batekin abiatu zen: telebista digitalerako egongo

Goienak eta Hamaika taldeak elkarrekin lan egingo dute

diren 15 barrutietan euskarazko telebista bana egotea, eta orain telebistak dituzten eskualdeetan, telebista horiek lanean jarraitzea; azkenean, 15 horiek elkarte baten batzea, helburu batzuekin: produktu gehiago eta prezio hobean lortzea; publizitatean irabaziak haztea; beste batzuei norbere ekoizpena saldu ahal izatea... Horrela iritsi

da Hamaikarekin indarrak batzeko unea. Aurrerantzean, lankidetzaz zehaztu egingo da; adibidez, ekoizpen batzorde bat osatuko dute, eta GOITBren ekoizpen erdia taldeak sortutako eta kudeatutako programekin osatuko da.

Horren guztiaren truke, Hamaikak Goienaren kapitalaren %5 dauka.

KANPOAN, LEHIA HANDIA

Martxoaren 23an bukatzen da modu digitalean emitituko duten tokiko telebistek baimena lortzeko eskaerak Jaurlaritzari aurkezteko epea. Goiena aurkeztu egingo da eta, orain hitzarmena daukatenez, Hamaika ez da gurean bere kabuz aurkeztuko, ez eta Tokiko elkarteko telebistak dau den beste barrutietan ere.

Hortik kanpo, baina, lehia gogorra izango da, batez ere hiriburu-tokiko eskualdeetan. Hala, Estatuko beste leku batzuetan gertatu denari begiratuta, Kataluniari, adibidez, komunikabide-talde handiak aurkeztu direla ikusiko dugu -Localia, Cope, Onda Cero, Vocento, Localmedia...- eta Euskal Herrian ere, hala izango da, seguruenik.

HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA

Sortzaileak Euskal Herriko talde ezagunak dira

Joan den irailaren 19an jaio zen Hamaika Tebista Hedatzeko Taldea, eskualdez eskualde euskarazko telebista kateak hedatzeko helburuarekin.

Proiektuko sortzaileak eta kideak honakoak dira: EKT (*Berria* kaleratzen duena), %20ko parte-hartzearekin; EKHE (*Gara*, *Le Journal*), beste horrenbesterekin; CMN (*Deia*, *Diario de Noticias*, *Diario de Noticias de Alava* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariak dituena), beste horrenbesterekin; Elkar liburu eta disko ekoizlea, %10eko parte-hartzearekin; eta, azkenik, %10enarekin ere Euskaltel telekomunikazio eragilea eta Baintet telebista eta zinema ekoiztetxea.



Hamaika taldearen aurkezpena, joan den irailean.

ARTXIBOA

ETORKIZUNA

GOITBren harreman-esparrua asko zabal daiteke

Lankidetzarako eta produktuak trukatu edo salerosteko aukerak biderkatu egingo zaizkio GOITBri hitzarmenaren bitartez. Hala, Hamaikak sei elkarte sortu ditu Araban, Debabarrenean, Donostialdean, Oarsoalde-Bidasoa inguruan eta Durango aldean, barruti bakoitzean emisio-baimena lortu asmoz; horiek lortuko balitu, GOITB leku horietan sortuko liratekeen telebistekin lan egiteko aukera izango luke. Hala ere, ikusteko dago zer gertatuko den, lehia egon daiteke-eta.

Kataluniako tokiko telebista batzuekin ere hitzarmena du Hamaikak, eta horien produktuak lortu ahal izango ditu Goienak.



GAZTEAK Oñatiko gazte batzarrekoek bat egin zuten deialdiarekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

GIZARTEA > AHT-REN AURKAKO AGERRALDIA ZAPATUAN

Jende asko agertu zen AHTren aurka, baina ibarreko ez hainbeste

AHTren trazatua pasatzen den herrietatik baino gehiago, eskualdeko beste herrietatik inguratu zen jendea Arrasateko kale agerraldira

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Herriari entzun: AHT gelditu lelopean, 1.500-2.000 bat lagunek Abiadura Handiko Trenaren aurka agerraldia egin zuten zapatuan Arrasateko kaleetan. Dei irekia zen, nahi zuten guztiek bat egin ezazaten, eta, antolatzaileek, AHT Gelditu! elkarlanak, bi aldetik begiratzen diote erantzunari: "Jende kopuru polita batu ginen, kontuan hartuta, gainera, Atxonon beste agerraldi bat zegoela eta Durango aldeko jendea hara

joan zela. Baina, bestetik, gure eskualdeko hainbeste jende ez zen etorri", dio Mila Elortza Elkarlaneko kideak. Hala, agerraldian Oñatiko edo Elgetako jende multzoak egon ziren, baina Arrasate aldekoak, proportzioan, gutxi. "Ibilbidea pasatzen den herrietatik baino gehiago, pasatzen ez den herrietatik etorri zen jendea", dio Elortzak. Gaineratzen duenez, Arabako eta Tolosa edo Donostia aldeko jende asko inguratu zen Arrasatera.

Bihar, martitzena, batzartuko dira antolatzaileak balorazioa egiteko eta AHTren aurkako ekintza gehiago antolatzeko.

"EGOERA LARRIA"

Agerraldia 17:30 inguruan abiatu zen Arrasateko plazatik. Besteak beste, poesia errezitaldia, txalaparta emanaldia eta bi bertolariren saioa ere izan ziren.

Agerraldi horrekin, Debagoieneko AHTren aurkako taldeek "egoeraren larritasunaz" ohartarazi gura izan zuten, eta obren bi zati esleitu eta besteak lizitazioa atera direla gogorarazi zuten. Kaltetuek informazioz ez jasotzen jarraitzen dutela ere salatu zuten.

Hizkuntza menpekotasuna landu zuten EMUNen eskutik

Joan zen egubakoitzean, 10:30ean, hizkuntza menpekotasunaren oinarri psikologikoen inguruko formazio saioa izan zen Arrasateko Kulturaten. Hizlaria Ferran Suay Valentziako Unibertsitateko Psikologia Fakultateko irakaslea izan zen.

Hizkuntza jarreretan eraginez eta aspektu psikologikoetan oinarrituta, euskararen erabilera soziala zabaltzea zuen helburu ekimen horrek. EMUNeko langileentzat antolatuta zegoen, eta 70 bat lagun bertaratu zen.



EMUN

ETXEBIZITZA > BALDINTZA ALDAKETA ETXEBIDEN

Bikoteek etxea eskuratzeko baldintza hobeak

Etxebiden inskribatutako bikoteek etxebizitza errazago eskuratzeko neurriak onartu dituzte oraintsu

KOLDO CARRILLO > BERGARA

Etxebizitza eta Gizarte Sailak neurri batzuk onartu ditu, Etxebiden izen emandako bikoteei eta elkarbizitza-unitate handiei etxebizitza eskuratzeko erraztu guran. Aipatutako neurri horiek zozketa guztietan aplikatuko dituzte hemendik aurrera.

NEURRI BERRIAK

Etxebizitza babestuen zozketetan, elkarbizitza-unitateei, tamainaren arabera, zenbaki bat edo gehiago ematea onartu berri dute. Honetaz gain, bikotekide bakoitza udalerrri bate-

an errolatuta egonez gero, bi zenbakirekin parte hartu ahal izango dute, bakoitza errolatuta dagoen udalerrian egiten diren zozketetan. Bestalde, zenbat eta handiagoa izan elkarbizitza-unitatea, onartutako diru sarreraren kopurua handiagoa izango da.

Neurri berri horiek aprobetxatu eta bikotekidea bere eskaeran sartu nahi duenak martxoaren 30era arte izango du horretarako aukera, hori baita eskaerarako azken eguna. Horretarako, nahikoa da Etxebizitza sailak norberaren lurraldean duen ordezkariak jo eta idazki bat aurkeztea, aldatu nahi duen datua adieraziz.

Egunotan, Etxebideko eskaeretan onartutako neurri berriak eta horiek dakartzaten abantailak jakinarazteko, gutuna bidaltzen ari da Etxebizitza saila Etxebiden izena emanda dutenei. Honako webgunean ere badago informazioa: www.etxebide.info.



BETETA Uarkape frontoia bete egin zen ELAren mitinean.

ARRITXU BARRUSO

SINDIKATUAK > ELA-REN MITINA ARRASATEN

Hitzarmen kolektiboaren alde egin zuen berba ELAK

Jose Elorrietak deitutako mitinean 1.800 lagun egon ziren joan den egubakoitzean

A.G. > ARRASATE

Negoziazio kolektiboaz eta Tuterako Eroskiko langileen egoeraz berba egin zuten ELAko arduradunek egubakoitzean Arrasaten, Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak deituta. 1.800 lagun inguru joan zen ekitaldira.

HAINBAT HIZLARI

Patronalaren aurka gogor hitz egin zuen ELAko Adolfo Muñoz

zek; bere hitzetan, patronalari ez zaio negoziatio kolektiboa interesatzen.

Tuterako Eroskiko langileen ordezkari Eva Martinezek esan zuen "aurrera" jarraituko dutela, eta Eroskik ez dituela "garaituko".

Jose Elorrietak, bestetik, hitzarmen kolektiboa defenditu zuen: "Badakigu hitzarmen kolektiboa dela gure eskubideak bermatzeko bide bakarra".

'Demokrazia, hiritartasuna eta lurraldetasuna nazio anitzeko gizarteetan' izenpean, nazioarteko Unibertsitatean. Oñatiko Lege Soziologiako Erakundeak, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean antolatu dute biltzarra.

Igor Ahedo > Zientzia Politikoko irakaslea

"Demokraziaren eraikuntza sekula amaituko ez den proiektua da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Igor Ahedok koordinatzaile lanak egin ditu Oñatiko nazioarteko biltzuran. Zientzia politikoetan, filosofian, zuzenbidean eta lege soziologian adituek euren analisiak plazaratzeko eta eztabaidatzeko aukera izan dute. Nazio anitzetako estatuetan bizikidetzak sozial eta politiko normalizatuta egituratzeko tresnak izan dituzte hizpide.

Gizarte "konplexuak" aztertu dituzue. Zer dela eta izendatu dituzue "konplexuak"?

Lau elementuk azaltzen dute konplexutasuna, Anthony Giddensen arabera: opakutasuna, konfiantza, arriskua eta globalizazioa. Arrisku egoera baten aurrean gaude, baina ez dakigu arriskua sortuko duen hori zer den, nola funtzionatzen duen. Beraz, sistemetan konfiantza izan behar dugu, eta horrek jarrera arduragabeak sortzen ditu. Euskal edo espainiar identitateez dihardugu, jendeak identitate sinpleagoak bilatzen dituenean: *Operacion Triunfo*, gremioak... Bestalde, globalizazioak konplexua dena konplexuago egiten du.

Eskubide kolektiboak erabil daitezke dira estatu propiorik gabeko nazioak babesteko?

Psikologo marxista batek dio mendebaldeko herrietan, *Tom eta Jerry*-ren marrazkiak, katua eta saguarenak, gustatzen zaizkigula, norbanakoak komunitatetik irten eta aro modernora pasatzeko isolatuta aurkitzen duelako bere burua, sagua katuaren aurrean beldurtuta bezala. Beraz, saguarekin identifikatzen gara, eta metafora honek erakusten du gure garaipena ez dagoela baldintzatu gure ahalmenarekin, katua zenbateraino den tontoa dela kontua. Segurtasunaren bila jotzen dugunean, jendeak konfiantza behar du. Lotura komunitarioek segurtasuna eman diezagukete.

Demokrazia uneoro eraikitzen ari da. Zein dira arkitektoak?

Denok izan behar dugu arkitekto, baina eragile kolektiboek daukate egin behar nagusia. Norbanakook egin dezakegu zerbait baina, horretarako, estimuluak behar ditugu. Eragile instituzional eta sozialek erakutsi behar dute, praktikan, zer den herri bat izatea; sekula elkar ezagutuko ez duten bi pertsonak senti dezatela gauza beraren parte direla. Horretarako, inpaktua sortzen duten gauza txikiekin hasi behar dira.



Igor Ahedok biltzura koordinatzaile gisa, hitzaldia ere egin du Oñatiko Unibertsitatean.

I.A.

Zein oinarri juridiko eta politiko hartu behar dira kontuan elkarbizitzarako?

Elkarbizitzarako, denok jakin behar ditugu arauak. Horretarako, lehenengo gatazka militarra argitu behar da. Gero, artikulazio politiko bat legoke, eta, horrekin batera, artikulazio instituzionala eta soziala. Azken hau da inportanteena, eta mahai gainean ez dagoen bakarra. Institutuzioek kanpainak egitea ondo dago, baina herri mailatik abiatuta gorantz loturak sortuz, herritarren parte-hartzea bultzatuz. Hala ere, horrelako dinamikek denbora eta baliabideak behar dituzte.

Bestalde, oraingo egoeran, eragile sozial guztiek aurkeztu behar dituzte euren proposamenak. Ezin da mahai teknikoan eta politikotan borroka dagoen bitartean kalean ez egon. Horrek bermatuko luke herritar guztien parte-hartzea. Bestela, ez dakigu erabakiak non eta noiz hartzen diren.

ERAIKUNTZA

"Denok izan behar dugu demokraziaren arkitekto, baina eragile kolektiboek dute egin behar nagusia"

PAUSOAK

"Horrelako egoeran, diskrezioa behar da baina ez da aitzakia informazioa ez emateko"

GLOBALIZAZIOA

"Kulturaren homogeneizatzea dakarren neurrian, globalizazioa txarra da"

Normalizazio politikorako bidean, zein dira orain arte emandako pauso nagusiak?

Pauso asko ematen ari dira, baina iruditzen zait bi antzezlan ari garela batera ikusten, eta oraindik ez dakit antzezlan zein den. Batean, eszenatokiaren zati bat baino ez dugu ikusten, eta beste, itzal batzuk. Gustatuko litzaidake ate guztiak zabaltzea, eta orduan egingo nituzke balorazioak. Ulertzen dut horrelako egoeran diskrezioa beharrezkoa dela, baina hori ez da aitzakia izan behar informazioa ez emateko.

Euskal Herrikoaz gain, beste kasu batzuk ere jorratu dituzue.

Beste herrialde batzuetako kasuetan ikusi nahi izan ditugu argi batzuk. Kasu guztiak ezberdinak dira. Gainera, Euskal Herrian arazo pila bat daukagu, eta beste kasuak ezagutzeak animatu egiten gaitu. Parekotasunak aurkitzea ahalbidetzen du,

eta kasu bakoitzetik gauza ezberdinak har ditzakegu: Irlandatik, sektoreen pragmatismoa; Kanadatik, erakundeena; federazio klasikoetatik, elkarbizitza... Azken finean, funtsezko galdera da nola eraikitzen dugun gure herria daukagunetik abiatuta; nola egituratu etnia ezberdinak...

Politikak eta zuzenbideak ez ezik, kulturak ere badu zeresanik gai honetan, ezta?

Politikak edo zuzenbideak beti ezartzen dituzte mugak. Guk, esaterako, egin dugu ikerketa bat Euskal Herriko nortasunari buruz, eta ikusi dugu inkesten erantzunak bere horretan erabat zurrunka direla; eztabaida taldeetan, berriz, mugak ez dira ikusten. Jendeak biolentzia, politika, alderdikeria... albo batera uzten ditu; beraz, elkarbizitza errazten da, eta posible da Euskal Herriaren konplexutasuna arintzea.

Normalizazio politikorako prozesuan, euskal gizartearen aniztasuna errespetatzea beharrezkotzat jo du Zenarrutzabeitiak jardunaldion hasieran.

Aniztasuna nortasunetan dago. Ni, esaterako, izan ninteke Errekaldekoa Bilbon, bilbotarra Oñatin, euskalduna Madrilen, europarra... Denok gara anitzak, eta gure gizarte ere plurala da; beraz, beharrezkoa da lan egitea horren inguruan. Esaterako, inmigrazioaren arazoa dago, badira baita haustura ekonomiko eta sozialak ere... Mundua ez dago ziurtasunean oinarritua; beraz aniztasunaren alde bakoitza errespetatzea ezinbestekoa da.

Globalizazioa onerako da demokraziaren eraikuntzan?

Homogeneizatze kulturala dakarren neurrian, kalterako da. Estatu homogeneo baten jabe izanez gero, gauzak errazagoak dira, baina, ornidurarik ez duen estaturik gabeko nazio baten jabe izanez gero, zailagoa. Era berean, globalizazioa positiboa da jendeak gertuko duen horretan babesa aurkitzeko, lokala global bihurtzen delako.

Demokrazia eraikuntza prozesuan dagoela esan duzue; inoiz amaituta ikusiko ditugu lanak?

Ez, sekula ere ez. Demokrazia proiektu amaiezina da. Norbaitek demokraziarako bidearen amaierara iritsi garela esango balu, faxista baten aurrean geundek.

oharrak eta deialdiak

BERGARA > Erretiratuen mendi irteera egunean

Kanpanzarera, Besaidera eta Udalara joango dira San Joxepe elkarteak martxoaren 22an. Bazkaria Udalan egingo dute. Izenematea (20 euro) erretiratuen elkartearen. Argibide gehiago, 943 76 30 09 telefonoan.

DEBAGOIENA > Lankidetzako ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan

Bakerako Lankidetzak Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzako ikastaroak antolatzen ditu udarako. Argibide gehiagorako deitu 94 444 32 07 telefono zenbakira edo <http://www.acpp.org> helbidean.

BERGARA > Kilometroak: herriko rock taldeekin bilera

Bergarako Aranzadi Ikastolak Kilometroak 07 jaia antolatzen dihardu, eta bilera bateara dei egin nahi die egunean bertan parte hartu nahiko luketen Bergarako rock taldeetako ordezkariari. Bilera martxoaren 28an egingo dute, 19:30ean, San Martin plazako eraikineko hirugarren solairuan.

ARAMAIO > Dirulaguntzak eskuratzeko deia taldeei

Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatu-

ko dizkiete herriko taldeei, kirol, jai, kultura... eta bestelako ekintzak antolatzeko. Bihar, martitzena, da muga eguna.

ARRASATE > Bianditza irteera zapatuan

Besaidek antolatuta, martxoaren 24an Bianditza ingurura irteera izango da. Izenematea bihar, martitzena, arte egin daiteke euren egoitzan (943 77 30 66).

ARETXABALETA > Berbaldia Sexu kontuak argitzeko

Basotxo erretiratuen elkarteak *Zaharzaroa eta sexua* berbaldia antolatu du. Ainhoa Gartzia adituak egingo du hitzaldia bihar, martitzena, Basotxon, 17:30ean.

ESKORIATZA > 1957an eta 1958ko urtarri eta otsailen jaiotako irteera

Udan, ekainaren

9an, egingo dute irteera, Arratiara. Interesatuak honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

BERGARA > 1981ean jaiotakoek batera bazkalduko dute

Martxoaren 31n egin dute hitzordua, Agorrozin tabernan. Izenematea, Euskadiko Kutxan, martxoaren 27ra arte. Bazkari egunean, Polo-Polen elkarteko dira, 13:00etan.

ARRASATE > 1940an jaiotako emakumeen bazkaria

Martxoaren 31n, Arrasateko batzokian. Aurretik, meza parrokian. Izenematea Zabaleta lurrindegian da. 20 euro da.

BERGARA > Olio-dastatze ikastaroa, hilaren bukaeran

Martxoaren 28an eta 29an, Blas Melgarejo eta Andres Martos olio

ekoizleen eskutik. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 58).

OÑATI > Hainbat ekitaldi Pake-Leku elkartearen

Gaur, astelehena, *Mrs. Henderson presenta* filma, 17:30ean. Martitzenean, *Como dormir mejor y descansar más* hitzaldia, 18:30ean. Martxoaren 23an, Legazpiko erretiratuen antzerki taldearen emanaldia, 18:00etan.

BERGARA > Kantu afaria Jardun elkartearen eskutik

Egubakoitzean, martxoaren 23an, Artatsen. Txartelak Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan eta Jardunen, 12 eurotan (bazkideak) eta 15 eurotan, gainerakoak.

BERGARA > 1979an jaiotakoek bazkaria martxoaren 31n

Tartufo jatetxean egingo dute. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, martxoaren 20ra arte.

ARRASATE > Euskaraz ez dakiten gurasoendako berbaldia

Julio Ibarra kazetariak eta Iñaki Eizmendik Lasarteko Tttakun euskara elkartearen teknikariak *No sabemos euskera... ¿cómo podemos ayudar a nuestros hijos?* hitzaldia egingo dute, eguaztenean, Santa Marinako Ludotekan, 18:30ean.

ARETXABALETA
> Saharako umeak hartu gura duten familiek argibideak jasotzeko aukera izango dute
Iesbaa Sahararekiko elkartean taldeak berbaldia antolatu du Saharako umeak hartu gura dituztenei argibideak emateko. Egunean, hilaren 22an, egingo dute bilera Irabalbarri plazako bidegela, 18:30ean. Arantza Gurmendik egindako dokumentala emango dute jarraian.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako telematika saileko arduraduna

Londrestik bueltan, zenbait gogoeta

Londresen egon nintzen joan den aste bukaeran. Hiri handia da Londres, eta denetik topa zenezake: mota guztietako jendea dago, janzkera zelebreenak ikus ditzakezu, munduko txoko guztietako janaria dasta zenezake eta, ingelesaz gain, hizkuntza pila bat entzuten dituzu kalean. Londres Ingalaterran egonik ere, kultura asko batzen dituen hiria da eta horrek erakarri egiten du. Hala ere, konturatu naiz ez dagoela Londresera joan beharrik hori guztia topatzeko. Garai batean gauza berri eta eskusiboen bila joaten zen Londresera jendea. Egia da badaude la jantzi bereziak, beste inon topatuko ez dituzun gauza eskusiboak, baina konturatu naiz geroz eta ezberdintasun gutxiago dugula haiekin.

Ingurura begiratzen badugu konturatuko gara Londresen itxura hartzen ari direla gure herriak ere. Kultura ezberdinetako jendea dugu gure artean, janari ezberdinak dasta ditzakegu, hizkuntza ezberdinak entzuten ditugu... Txarrena da azkenean denok antzeko gauzak egiten bukatzen dugula kultura ezberdinetakoak izan arren. Eskerrak oraindik Londresko telefono kabina gorriak geratzen diren!

"Konturatuko gara Londresen itxura hartzen ari direla gure herriak ere"

> **Globalizazioak eraginda-edo, elkarri atxikitako etxe berdinak ikus ditzakegu Teruelen, Kantabriako edo Leunberrin. Etxe berdin-berdinak sail luzeetan barrena, herrien xarma galduz.**

> **Londresko gauza asko ikus ditzakegu hemen, baina hala ere merezi du bertara joatea. Ez da gauza bera Boulevarden edo Camden Townen erosketak egitea. Oraindik ere badu bere erakarpena.**

debagoiendarrak kanpoan

Joxe Lazkano > Bergara

"Autoa gehiegi erabiltzen da; oinezkoentzat bide gehiago egin behar dira"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Joxe Lazkano Gasteizko alde zaharrean bizi da familiarekin. Orain 20 urte joan zen Gasteizera, eta orduetik han bizi da.

Ikastera joan zinen Gasteizera eta ordutik bertan bizi zara.

Bai, hala da. Ikastera etorri nintzen, orain 20 urte inguru. Euskal Filologia ikasi nuen eta, ikasketak bukatu nituenean, lanean hasi nintzen, euskaltegian. Geroztik, hantxe nabil.

Alde handia igarri dut ikasle bizitza eta langile bizitzaren artean, batez ere kale giroan. Baina aldaketa handiena umeak izan ditugunean etorri da. Umeak izan aurretik, kalera irteteko ohitura handiagoa geneukan, baina, orain, umeekin, lehentasunak beste batzuk dira.

Aisialdirako nolako aukerak ematen ditu Gasteizek?

Gasteiz bizi izateko oso hiri erraza eta lasaia da; kultura aldeetik, egia esan, ez da oso aberatsa. Baina hala ere, izaten dira hainbat ekitaldi; musika, antzerkia...

Gu ere, ahal dugunean, joaten gara ekitaldietara. Ni, adibidez, musikazalea naiz, eta gustatzen zait kontzertuetara joatea. Zinema ere gustuko dut.

Bestalde, naturaz gozatzeko aukera ona dago Gasteizen. Oso gertu dauzkagu hainbat paseo leku; horietara, denbora gutxian iristen gara.

Bergarara etortzeko ohitura-rik baduzu?

Bai, joaten gara. Batzuetan, sarri joaten gara; beste batzuetan, berriz, denbora gehiago ematen



GOIENKARIA

Gasteizera ikastera

Euskal Filologia Gasteizen ikasi zuen bergarar horrek. Gero, IKA euskaltegian hasi zen irakasle lanetan.

dugu Bergarara joan barik; bola-da kontuak izaten dira.

Jai egun zehatzetan eta afa-riak ditugunean, orduan bai, Bergarara joaten gara.

Hiriburuan zaudenean, zeren falta igartzen duzu?

Herri txikietan, denok gara ezagunak; hala, kalean beti aurkitzen duzu agurtzeko edo bi berba esateko ezagunen bat. Gasteizen berriz, batzuk ezagunak izan arren, orokorrean, anonimoagoak gara.

Nola ikusten da Debagoiena Gasteiztik?

Jendeak ez du gure ibarra asko ezagutzen; bateren batek bai, baina, orokorrean, ez. Orain, autobidea dela-eta, nik uste dut jendeak kostara joateko ohitura

hartuko duela, baina ez gure ibarrean geratzekoa. Debagoiena Gasteiztik oso gertu egon arren, nire ustez, jendeak ez du gure ibarra ezagutzen.

Kanpotik ikusita, zer falta zaio Bergarari?

Debagoienean, orokorrean, herrien arteko komunikazioa falta da; orain, tranbia egin nahi dutela-eta, beharbada, lotura handiago izango dute herriek bata bestearekin.

Bestalde, autoa gehiegi erabiltzen dela uste dut. Oinezkoentzat bide gehiago egin behar dira, eta herriaren erdigunean, hainbat kale autoentzat itxi egin behar-ko lirake, egun konkretuetan, behintzat. Bergarako plaza, adibidez, alperrik galduta dagoela iruditzen zait.

kale inkesta

Botiken kontsumo arduratsua egiten duzu edo zeure kasa hartzen dituzu botikak?

Socorro Peña
Langilea
Oñati

Noiz edo noiz, hartu izan dut zerbait; adibidez, buruko mina dudanean, aspirina. Baina normalena medikuarengana joan eta hark emandako botikak hartzea izaten da, beharrezkoak ditudanak.

Roberto Zulueta
Pentsioduna
Oñati

Bai, kontsumo arduratsua egiten dut. Zerbait dudanean, medikuarengana joaten naiz, eta errezetak egiten dizkit. Gero, tratamendua bukatzerakoan, botikak bota egiten ditut; ez ditut gordetzen.

Rosa Gonzalez
Pentsioduna
Oñati

Egia esan, osasunez ondo nabil eta, orain arte, ez dut botikak hartzeko beharrik izan. Hala ere, buruko minarentzat, etxean beti izaten ditut aspirinak. Kontsumo arduratsua egiten dudala uste dut.

Bernardo Niebla
Langilea
Billabona

Kontsumo arduratsua egiten dut, edo, behintzat, ahalegintzen naiz. Zerbait daukadanean, medikuarengana joaten naiz, eta hark emandakoa hartzen dut. Bestela, nire kasa, ez dut ezer hartzen.

irakurlearen txokoa

943-25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Autoetako hauts-ontzi hustuen arrastoak

Santa Marinako aparkalekuan, zenbait gidarik kotxeetako "hauts-ontziak hustu eta zigarro-puntak bertan" uzten dituztela kezu idatzi digu bizilagun batek. "Nazka ematen du ondotik pasatzeak" eta, errespetu eske, "ez dadila gehiago gertatu" dio.

ARRASATE

> Autoak apurtuta berriro ere.

Asteburuan zehar, Otaloran aparkatuta dauden autoen egoera "domeketako betiko kontua" dela esaten digu bizilagun honek, gaua bertan eman eta "hurrengo goizean autoetan kolpeak eta zenbait ispilu hautsita" aurkitzen baititu sarri. Gazteak parrandan irtetearen aldekoa da arrasatear hau, "baina kalea eta bizilagunak errespetatuz, betiere".

OÑATI

> Oñatiko duatloiko antolaketa

Zapatu arratsaldean Oñatin izandako duatloien "antolaketaren paregabea" zoriondu guran deitu digu oñatiar batek. "Guztiak aparteko emaitza" izan zuela diosku, eta "antolaketa bera, ibilbidearen seinaleztapena, lasterkariak, giro polita... egindako lanaren fruitua" erakutsi zutela ziurtatzen digu. "Antolatzaile eta lasterkarien arteko harremana itzela izan zen arratsaldean zehar", bere iritziz, eta aurretik pentsatutako erraztasun guztiak eskaini zizkioten lehenek bigarrenei.

usteak uste

Edurne Burgaña

Bergara
VS.
Mutriku

Zergatik aukeratu dudan Mutriku bezalako herri bat Bergararekin alderatzeko? Bada, ni neu mutrikuarra naizelako.

Gipuzkoako herriak biak. Bata kostakoa, eta bestea barrualdekoa. Eta itsasoak xarma handia ematen dio, nire uste apalean, herri bati. Puntu bat Mutrikuren alde, beraz.

Alperrek esango dute Mutriku aldapa asko, eta handiak daudela. Lagun (min) batek esaten duenez, aldapak direla-eta, mutrikuarrok hanka-pelota handiak dauzka. Ez dakit puntu negatiboa ala positiboa den hori. Baina nahi gabe kirola egitea kaleetan gora eta behera, ez da txarra. Bigarrena, beraz.

Baina bietan aparkamendu arazo bera aurkitzen dut. Negatiboa biezat: 0-1.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Txakurra maiteago

"Nafarroa "euskal autonomia erregimenaren" barruan sartzeko eskaeraren aurrean Espainiako Gobernuak amore emango zuen beldur ziren Nafarroako indar erregionalistak, Amadeo Marco Diputazioko presidenteordea buru zela."

Imanol Murua Uribe
Berria > 2007-03-16

Joañan dan zapatuan, hillaren 17an, Iruñean egiteko zane kale-agerraldixa zeban jardukizun *Berria*-k, bezperan, 16an. Jakiña danez, agerraldi hori UPNren eta PPren kontua izan zan. Orain 30 urte be, hurbil-hurbilleko arrazoi edo aitzakixak erabilita, antzeko zerbait egin zala ekarten zeban gogora Imanol Muruak *Berria*-n.

1977an Naparruako Diputaziñuan jarduneko presidente Amadeo Marco frankistia zan. 1977an Naparruako zeru gañian UPNek ez zeban ñir-ñirrik egiten, artian erditu barik zeguana eta halako izarra.

Giro hartan esan zeban Amadeo Marcok *Berria*-k oroibarrizten dabean esaldi polita: "Pertsonak zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago maite dut nire txakurra".

Neri ez jat ezaguna egiten Amadeo Marcoren saihets etologoa.

Sasoi hartan animalixen mundua aztertzen, babesten eta ezagutzera emoten lan edarra egin zeben -jakiña danez- Félix Rodríguez de la Fuentek edo Dian Fossey primatologo bide-urratzaileak, barbarako. Baña don Amadeo frankistia animalixa artian halako era samurrian... sube bat bizikletan pasiatzen ikustia bezain arrarua egiten jat.

Interneten bidez saiatu naiz txakurren edo beste animaliren baten azterketez edo ikerlanen interesatu diren artian Amadeo Marcok Ilincheta aurkitzen... baña, ezebez!

Ezagutu ez geneutsan baleen edo foken aldeko sentiberatasun ezkuturen bat izan ote zeban, Brigitte Bardoten antzera?

Kontua da egunian baño egunian ezagunago dituan horreen artian don Amadeo beraren ingurukoena dabela, halabiharrian. Zein, bestela? Ondorioz, hauxe da egiteko daukadan galderia: don Amadeorengandik hain aparte zebitzen Aizpun, Del Burgo, Gurrea, Sanz eta konpañia?

Don Amadeok horrek danak baño maiteago zeban txakurra? Haundixa da ba!

"Neri ez jat ezaguna egiten Amadeo Marcoren saihets etologoa"

"Baleen aldeko sentiberatasun ezkuturen bat izan ote zeban?"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.comHarpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 aleGipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE

Polmetasa dagoen lekuan 220 etxebizitza eraikitzeko proiektuak jaso du Udalaren baimena > 10



> ARETXABALETA

Aurtengo ekintzak erabaki ditu Basotxo elkarteak: bidaiak, mendi irteerak, hitzaldiak... > 13



> ELGETA

'La Guerra Civil en Eibar y Elgeta' delako liburua aurkeztuko dute datorren egunean > 14

ERABERRITZE LANAK > OÑATIKO PARROKIA

Hamabost egun barru kenduko dute parrokia estaltzen duen aldamia

ALDAMIOA

Bi aste barru kenduko dute dorreko aldamia; gero, eliza atarian jarriko dute beste bat

UZTAILERAKO

Urriari hasi ziren beharrekin, eta uztaileko amaituta edukitzea gura dute

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Urriaren 3an hasi zituzten Mikel Goiangeruaren parrokiako kanpandorre, klaustro eta eliz-atari-ko fatxadak zaharberritzeko lanak. Aldamio batek estaltzen du parrokia, kanpandorreko lanak egin ahal izateko. Bi aste barru kenduko dute altzairua, eta lanen emaitza ikusi ahal izango dute herritarrek.

HIRUGARREN FASEARI BEGIRA

Dorrean egiten ari diren lanak bukatzeaz daude. Ikastola aldeko klaustroa txukuntzeko lanetan dabilta orain, eta, bigarren fase horretan ari direla, hirugarrena ere hasiko dute: sarrera nagusiko aterpea konpontzeko lanak. Laster hasiko dira sarrean aldamia jartzen. Hori egin bitartean, beste sarrera erabili behar da parrokiara sartu ahal izateko; plaza aldekoa, alegia. Hiru faseak uztaileko amaitzea espero dute.

Urteen joan-etorriak ez du barkatzen, eta uraren eta heze-

tasunaren ondorioak Oñatiko parrokiari ere nabariak ziren oraintsu arte. Harriak beltzitu eta, zenbait lekutan, hondatu zeuden. Kanpoaldeko ormak garbitu eta konpontzea da urriari hasi ziren beharren helburua. 701.000 euroko aurrekontua dute lanek: Gipuzkoako Foru Aldundiak %50 ordainduko du; Oñatiko Udalak, %25; eta parrokiak, geratzen dena.

EMAITZAK

Donostiako Teusa enpresa ari da eraberritze lanak egiten, Iñigo Guibert arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Aldamio egitura jaso zutenean, harriaren benetako gaitzak azaleratu ziren. Kareharria oso konpaktua izaten da berez, baina parrokiako ormetan nahikoa ahula zegoen lanak hasi zituztenean; batez ere, goiko aldean.

Kanpandorreko erlojuak desmuntatu egin zituzten egiturak sendotzeko, eta Elizako doktoreen lau eskulturak ere eraberritu dituzte.

Garbiketa lan sakona egin dute Teusa enpresako langileek. Hasteko, biozida bat aplikatu diote harriari, belar, alga eta beste-lako elementu biotikoak kentzeko. Harriak zeukan hautsa eta kostra beltza espatulak erabilita kendu dituzte, eta harri arteko juntak ireki eta saneatu egin dituzte. Amaitzeko, presioan botatuko likidoak esker, sakon garbitu dute harria. Beste kolore bat dauka orain, eta bat baino gehiago aho zabalik geratuko da kanpandorreak hartu duen itxura ikusita. Goiko aldean egin dituzten lanen emaitza ez da asko igarriko, baina bai garbiketena.



ESKULTURAK Kanpandorreko lau eskulturak ere eraberritu egin dituzte.

MIREIA BIKUÑA

Herritarren borondatearen beharrea

Kanpandorrea eta kanpoaldea eraberritzeko lanek eragindako gastuei aurre egin ahal izateko, herritarren dirulaguntza jasotzeko kanpaina ere jarri zuen martxan Parrokiako Eraberritze lanetarako batzordeak. Herritarren borondate sendoaren beharra azpimarratu zuten. Kontua da Parrokiak 70.000 euro bere poltsikotik ordainduko dituela, baina beste 127 mila euro behar ditu. Falta duten kopurua herritarren eta enpresen diru ekarpenetatik lortzea espero dute. Kutxa, Euskadiko Kutxa, BBVA, Santander, Banco Guipuzcoano, La Caixa eta Caja Ruralen sar daiteke dirua.

ETXEBIZITZAK > AZERIKO ETXEAK

220 etxebizitza eraikitzeako proiektuak badu udal baimena

Proiektua ez dute jendaurrean ipiniko, harik eta udal teknikariek eskatutako zuzenketa guztiak egiten dituzten arte

UBANE MADERA > ARRASATE

Polmetasa lantegia dagoen lekuan, San Andres auzoan, 220 etxebizitza eraikitzeako egitasmoari baiezkota eman dio oraingo astean gobernu batzarrak. 220 etxebizitzetatik 154 libreak izango dira, eta 66, babes ofizialekoak.

Polmetasari dagokionez, lekuz aldatuko dute, Uribarrira. Dagoeneko hango pabilioia eraikitzen badabilza.

ZAZPI SOLAIRUKOAK

Eraikiko dituzten etxeek behebarruak, komertzioetarako, eta beste zazpi solairu izango dituzte. Babes ofizialekoei dagokienez, bi eta hiru gelakoak izango dira. Etxebizitza horietako hiru, gutxienez, gorde egin beharko dituzte, zailtasunak dituzten pertsonendako. Etxebizitza libreei dagokienez, berriz, 154 etxebizitzetatik lau gordeko dituzte, gutxienez, zailtasunak dituztenenentako.

Bestalde, garajeak ere eraiki behar dituzte; legeak dioenaren arabera, etxebizitza bakoitzeko bi plaza. Beraz, 440 aparkaleku eraiki beharko dituzte, gutxienez.

Horrez gainera, proiektuaren arabera, lur azpiko aparkaleku bat ere eraikiko dute, Cordoba y Oro plazaren azpian, 870 m²-ko azaleran. Erabilera publikoak izango du horrek, baina



POLMETASA Argazkian, Polmetasaren lantegia, San Andresen; orain berria eraikitzen dabilza, Uribarrin .

IMANOL SORIANO

proiektuan ez dago zehaztuta zenbat plaza izango dituen. Cordoba y Oro plaza dagoen lekuan, haren tamaina duen plaza berria ere eraikiko dute.

Esandako moduan, proiektua onartu egin du gobernu batzarrak eta, berez, jendaurrean ipini beharra dute; baina ez dute hala egingo. Izan ere, udal teknikariek akats dezente aurkitu dizkiote, eta zuzenketak egin beharko dituzte jendaurrean ipini baino lehen.

DATU GEHIAGO

Proiektuaren gaineko zenbait xehetasun

San Andres eta Bedoñabe auzoen artean eraikiko dituzte etxebizitzok, 15.369 metro koadroko azaleran. Hain zuzen ere, orubearen mugak honako hauek izango dira: mendebaldean, Alfonso VIII.; ekialdean, Araba etorbidea; hegoaldean, Bedoñabe eta Intxausti industria-guneak; eta, iparraldean, San Andres auzoa eta Cordoba y Oro plaza. Bada, gune horretan 220 etxebizitza eraikiko dituzte, 154 libreak eta 66 babes ofizialekoak. Babes ofizialeko etxebizitzek zenbait ezaugarri bete beharko dituzte: batezbeste, 90 metro koadro izango dituzte, eta etxebizitzaren %65ek bi logela izango ditu, eta %35ek, hiru.

ERRETIRATUAK > ABAROAKO BATZAR OROKORRA

Abaroak ia 41.000 euroko aurrekontua onartu du 2007ko jardunaldirako

Oraingo asteko eguenean egin dute urteko batzar orokorra; 2.000 bazkide pasatxo ditu Abaroa erretiratuen etxeak, eta 100 baino gehiago izan ziren batzarrean

U.M. > ARRASATE

Iazko akta eta kontuak onartu ostean, 2007ko jardunaldiaren gainekoak landu zituzten Abaroako bazkideek batzar orokorrean. Tartean, 40.958 euroko aurrekontua onartu zuten, gastuetarako. Hor-tik, mantenurako 19.945 euro erabiliko dituzte, eta 21.013 euro, urteko ekintzetarako: txangoak, gimnasia, eskulanak, dantzaldiak, jostintza, jaiak, karta jokoak eta pertsona nagusien omenaldia.

ABAROAREN LEKUALDAKETA

Horrez gainera, erretiratuen egoitzaren lekualdaketa ere berba-



BATZARRA Abaroak dituen 2.000 bazkide ingurutik 100 baino gehiago izan ziren egueneko batzarrean.

TXOMIN MADINA

izan zuten egueneko batzarrean. Halaxe adierazi du Abaroako idazkari Jose Rivierek. Hala, bazkideei jakinarazi zieten dagoeneko ia bukatuta dutela arkitektoek Abaroa berriaren proiektua.

Hori bai, oraindik udalbatzarrak onespina eman beharko dio, eta gero, lanak esleitu egin beharko dituzte; horrenbestez, prozesuak luze jo dezakeela ere nabarmendu zuten. Edozelan ere, Iturbide-

ko obrak uda ostean hasi behar dituztela kontuan hartuta, obra horiek Abaroan eragina izan baino lehen lekuz aldatu beharko lituzketela pentsatzen dute Abaroako bazkideek.

> INGURUMENA

Larrañaga sailburuak kolektoreko lanak aurkeztuko ditu gaur

Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua gaur Arrasaten izango da, kolektorearen lanak aurkezten. Hau da, Arrasatetik pasatzen diren Deba eta Aramaio erreketara botatzen ziren ur zikinak batzeko egin duten kolektoreko lanak bisitatuko ditu. Kulturate pareko plazan azalduko ditu ekintzen nondik norakoak. Handik, Garagarzara joko du, eta Etxe Txiki-tan bukatuko du bisita.

> UDALA

Gizarte kontuak berba-gaurko gobernu batzarrean

Asterokoari jarraituz, gaur, 16:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra egingo dute udaletxean. Gai zerrendako gaien artean, gizarte kontuen gainekoak aipa daitezke. Izan ere, batetik, erabaki beharko dute aurten onartuko diren dirulaguntzen aurrerakinak onartu edo ez, ATECEren eguneko zentroa ez itzeko dirulaguntza berezia eman edo ez, eta Atzegik egindako dirulaguntza eskaera onartu edo ez.

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA IZAN ZEN ZAPATUAN

Bertako zuhaitzak eman eta landatu dituzte

Ingurua zaintzeko eta bertako espezieak sustatzeko mezua zabaldu dute zuhaitz egunean

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Zuhaitz eguna ospatu zuten zapatuan San Martzialen. *Basoa berreskuratzen* izan da aurtengo zuhaitz eguna ospatzeko mezua. Horrela, zuhaitzak landatu zituzten, eta hildako egurrekin egindako piramidea egiten bukatu zuten.

HAGINA, GOROSTIA ETA SAGARMINA

Zuhaitzak landu ez ezik, zuhaitz landareak banatu edo oparitu ere egin zituzten. Ez edozein zuhaitz, galtzeko arriskuan dauden bertako zuhaitzak baizik. Zehatz esanda, hiru zuhaitz landare mota banatu zituzten: hagina, gorostia eta sagarmina. Men-

dia Bizirik taldeko Iñaki Irizarrek esan bezala, "bertako espezieak sustatu nahi ditugu eta, horregatik, hiru zuhaitz landare mota horiek oparitu ditugu horretan lagundu nahi duten herritarren artean. Asmoa da, lorategian landatu barik, mendian landatzea gero zuhaitz horiek ere".

San Martzial ingurua berreskuratzearekin batera, herriko hariztiak ere berreskuratu nahi dituzte.



SAN MARTZIAL Zapatu goizean landatu zituzten zuhaitz landareak San Martzialen.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Kilometroetako zirkuitua nolako den ikusi dute

Kilometroetako zirkuitua ikusteko irteera egin zuten zapatu goizean. 10:30ean atera ziren Aranzadi ikastolako jolastokitik, eta zirkuitua nondik norakoa izango den ikusi zuen argazkian dagoen herritar taldeak. 6.510 metro ditu, guztira, zirkuituak: jolastokitik Martinez de Irala aldera, San Martin zubitik eta Alkabieta kaletik zehar; handik, Boni Laskurain kalea hartu eta, bidegorritik aurrera, Gabiria ondoko argi transformadoreraino; Artabilatik Agarrera, handik Gaitao aldera eta, Candy Hoover lantegi aurretik, kiroldegira. Zubiurretik seminaria doa bueltan.



FERIA Aurtren ere egongo da feria Erramu zapatuan.

GOIENKARIA

JAIA > ERRAMU ZAPATUA

Hileko azken egunean da aurtengo Erramu zapatua

Gauean, bertso saioa egongo da frontoian, eta Enaitz Alustiza izango da gaiak jartzen

09:30etik aurrera. Trikitilariak eta zanpatzarrak kaleak girotzen ibiliko dira goizean, eta arratsaldean, umeendako jolasak egongo dira San Martin plazan. Jardunek aurtren ere antolatu du txorimalo lehiaketa, eta Ibargairai kalean egongo dira ikusgai. Lehiaketan parte hartzeko ize-na martxoaren 26a baino lehen eman behar da. Gauean, 22:15ean, bertso saioa egongo da frontoian. Etorriko diren bertsolariak hauek dira: Egaña, Paya, Elortza, Iturriaga, Maia eta Lujanbio. Enaitz Alustiza izango da gai jartzailea.

O.E. > BERGARA

Martxoaren 31n egongo dute aurtengo Erramu zapatua. Egitarauak jasotzen duen moduan, aurtren ere ganadu feriak zabalduko du eguna. Abelburuak, hegaztiak, Euskal Labeleko produktuak, makinaria eta artisauiak egongo dira ferian,

SAHARA > BIDAIA

Saharara doaz Mariaren Lagundiko hamasei lagun

Heziketa bereziko proiektu baten parte hartzea da talde horren asmoa

tzea da. Garun paralisia dutenekin lan egiteko asmoa dute, eta baita hirugarren adinako en zentsua egiten hasteko, posible bada. Bestalde, Saharan egongo diren egunetan, emakumeen kongresua egongo dute han, eta horretara joateko gogoa ere badute. Haurtzaindegiak eta hezkuntza zentroak ere bisitatuko dituzte.

O.E. > BERGARA

Mariaren Lagundia ikastetxe-ko 13 ikasle eta beste hiru irakasle Saharara doaz Aste Santuan. Haur Hezkuntza eta Gizarte Integratzaile moduluak egiten ari diren ikasleak dira, eta euren asmoa heziketa bereziko proiektu baten parte har-

Eguaztenean bilera izan zuten Saharako egoeraz berba egiteko. Aste honetan, beste bat egongo dute Fronte Polisarioko kideekin, hango errealitatea hobeto ezagutzeko.



TALDEA Saharara joango den lagun taldea.

O.E.

BERTSOLARITZA > 45 BERTSO ESKOLATAKO KIDEAK ETORRIKO DIRA

III. Gipuzkoako bertso eskolen topaketa, domekan

250 neska- mutiko espero dituzte bertso eskolen topaketan

Jolasak, bertso-magia ikuskizuna eta Andoni Egañaren eta Maialen Lujanbioren saioak iragarri dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eta Gipuzkoako Bertso Eskolen Sareak elkarlanean antolatu dute, domekan, Oñatin jokatu duten III. Gipuzkoako Bertso Eskolen Topaketa.

Antolatzaileen esanetan, topaketa horien helburua Gipuzkoako 45 bertso eskoletako gazteak elkar ezagutzea da, eta bertsoak eta aisialdia uztartzen dituen egun osoko festa eskaintzea batutako guztiei.

Hala, egun osoko egitaraua iragartzen dute.

EGAÑA ETA LUJANBIO

Goizeko 11etan elkartuko dira Oñatiko plazan topaketa horretan parte hartuko duten 250 neska- mutikoak. Goiz partean, jolasak eta bazkaria egingo dituzte. Eguraldiak laguntzen badu, bazkaria plazan egingo dute; bestela, kiroldegian.



OÑATIARRAK Argazkiko Oñatiko bertso eskolako kideek parte hartuko dute domekako topaketan.

OÑATIKO BERTSO ESKOLA

Bazkaldu ondoren, topaketan parte hartzen duten gazteenendako, Txan magoarekin bertso-magia ikuskizuna egongo da;

eta, hain gazte ez direnendako, Egañaren eta Lujanbioren bertso saioa. Iturengo trikitilariak giro-tuko dute bazkaria.

Bertso eskolen topaketan parte hartzen duten neska mutikoek kamiseta bana jasoko dute oroigarri modura.

Bertsolari txapelketako finala martxoaren 31n jokatu dute

Oñatiko Bertsolari Txapelketako hiru kanporaketak jokatu ondoren, final handia martxoaren 31n jokatu dute, Arrano tabernan. Zapatuan jokatu zuten hirugarren eta azken kanporaketa, eta dagoeneko badakizkigu finala jokatu duten bertsolarien izenak. Hala, jokatuak hiru kanporaketetako irabazle gisa, Josu Igartua, Andoni Goitia eta Egoitz Aizpuru sailkatu

dira. Halaber, gainontzeko hiru finalistak puntuaketaren arabera aukeratu zituzten: Joseba Lasagabaster, Iñaki Olalde eta Beñat Alberdi, hain zuzen.

Oñatiko Bertsolari Txapelketako antolatzaileak oso pozik daude bertsolariak erakutsitako mailarekin, eta baita zaleek emandako erantzunarekin ere. Hiru saioetan, Portu eta Arrano tabernak bete egin dira.

LEHIAKETA

Logotipo berria aukeratzeko deialdia

Arrasate-Oñati lasterketarako logotipo berriaren bila dabil Laixan

M.B. > OÑATI

Laixan euskara elkarte urtero antolatzen duen Arrasate-Oñati lasterketa herrikoia- ren kamisetarako diseinu berriaren bila dabil. Hala, logotipo lehiaketa deitu du elkarteak.

BALDINTZAK

Logotipo lehiaketa Euskal Herri osora zabalduta dute.

Marraskia, gehienez, bi koloretan izan behar da, eta testu hauek gehitu behar dizkio egileak: XXV. Arrasate-Oñati lasterketa eta Jantzi kirola euskaraz.

Hala, baldintza horiek beteta, logotipo lehiaketara aurkeztu gura duenak, lana apirilaren 15a baino lehen entregatu behar du, Laixan euskara elkarte bulegoan (Bidebarrieta, 18).

Lanak aurkezteko epea amaitu ondoren, epaimahaiak aukeratu du irabazlea, eta marraski horrekin irudikatuko dituzte lasterketaren inguruko gauza guztiak; tartean, lasterketan parte hartzen dutenek jasoko duten kamiseta.

Irabazleak 150 euro jasoko ditu sari gisa.



MIREIA BIKUÑA

Bere tokian jarri dute Ama Birjina

Kuba taberna zegoen etxearen ordez eraiki duten etxebizitza berrian jarri dute Bakardadeko Ama Birjinaren irudia. Herritar talde batek berritu du irudia: margotu egin dute eta arropa berriak jarri dizkiote.

Jabier Etxeberriak izan zuen Ama Birjina bere kutxatxoan sartzeko ohorea. Ondoren, abadeak irudia bedeinkatu zuen.

Juan Ibarrodo omendu du Musika Bandak

Erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio Juan Ibarrodori. Maiatzean, 86 urte beteko ditu, eta 27 urtean klarineta jo du Oñatiko Musika Bandan. Hala, horko kideek omenaldia egin zioten atzo, domeka. Oroigarria jaso zuen Bandako zuzendari Inaxio Ibarrodoren eskutik. Haren emazteak, lore-sorta jaso zuen.

Oñatiko Udala Musika Banda 1970ean desagertu zen. Hamar urte eta gero, berriro martxan jarri zen, Inaxio Ibarrodoren eskutik, eta 30 kide zituen. Haietako bat zen Juan Ibarrodo. Gaur egun, Udala Musika Bandak 55 musikari ditu.



JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA > BASOTXO ERRETIRATUEN ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Iazko balantzea, 2007rako aurreikuspena eta zuzendaritza aldaketa Basotxoko batzarrean

2007an, bost berbaldi, hiru mendi irteera, ikastaroak eta bidaiak egingo dituzte

Astelehenean erabakiko dute zein izango den elkarteko presidente berria

IKER BARANDIARAN > ARETXABALETA
Aretxabaleetako Basotxo erretiratu elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen egunean. Herrian erretiratuak batzen dituen elkarre bakarria da Basotxo eta, gaur egun, 927 bazkide ditu.

Elkarteko batzarrak 2006an Basotxok egin zituen ekintzen errepaso egin zuen bazkideen aurrean. Bai bazkideak eta baita batzarra ere oso gustura dauke iazko ekintzek izan zuten esku-hartzearekin, eta nabarmendu zuten berbaldiek eta bidaiak oso harrera ona izan zutela.

AURTENGO EKINTZAK

Bestalde, 2007rako aurreikusita duten programazioa azaldu zuten: bost berbaldi, hiru mendi



BATZARREAN ALDAKETAK Jose Maeztu idazkaria, Jose Ramon Rodriguez presidentea eta Antonio Garcia diruzaina. GOIENKARIA

irteera, bainika eta bestelako eskulan ikastaroak, bidaiak eta jaialdiak, hain zuzen ere.

ZUZENDARITZA BERRIA

Bestalde, batzar orokorrean jakinarazi zuten zuzendaritzako lau kide aldatu egingo dituztela; eta

beste lau, azkeneko urtean aritu direnak, lanean jarraituko dutela. Kide berriak honako hauek izango dira: Carlos Gutierrez, Juanita Jauregi, Jose Mari Roldan eta Itziar Errasti. Horrez gain, ordezkari moduan, Francisca Sasiain aukeratu zuten.

Gaur egungo lantaldeari dagokionez, Basotxo elkarteko presidente Jose Ramon Rodriguezek jakinarazi du kargua utziko duela. Hala, astelehenean egingo duten batzarrean aukeratu dute presidente berria beterranen artean.

ARETXABALETA

Elkartek webgunea egiteko aukera dute

KZguneak eskaintza hori doan egin gura die herriko elkarteei

I.B. > ARETXABALETA

Aretxabaleetako KZguneak herriko elkarteei webgunea egiteko aukera ematen die. Jakinarazi digutenez, elkarre horiek webgunea erabart doan lor dezakete, eta bi hizkuntzatan. Hala, euskaraz eta espainolez jarri ahal izango dituzte edukiak.

KZguneako arduradunen esanetan, webgune horietan, gura beste informazio sar daiteke: agenda, berriak, argazki bildumak, elkartearen gaineko informazioa historia, zeintzuk diren, non dauden...

ELKARTEKO ORDEZKARI BANA

Webgunea egiteko, elkarteko ordezkari bana KZgunera joan beharko da, informazioa sartzen ikasteko.

Interesatuak 943 79 94 44 zenbakira deitu behar dute 16:00etatik 20:00etara bitartean; edo tutor.aretxabaleta@kzgunea.net-era idatzi.

ESKORIATZA



AMUSKA

Amuskakoek Errioxara irteera egin dute

Joan den asteburuan, Amuska elkarteak antolatuta, 42 emakumek Errioxara txangoa egin zuten martxoaren 8a ospatzeko. Urtero egiten dute bazkariren bat, baina, aurten, kanpoan bazkaltzea erabaki zuten.

Marques de Riscal upategira bisita gidatua egin zuten. Gustatu zitzaizkien museoan ikusi eta dastatu zutena, baina penaz irten ziren Frank Gehryk egin

duen hotela ikusten utzi ez zirelako. Kontatu digutenez, hoteleko bezeroak bakarrik sar daitezke barrura; hala esan zieten.

Horren ostean, Eltziego eta Guardia bisitatu zituzten, eta ederto bazkaldu zuten. Handik bueltan, Logroñon geldiuena egin zuten, hango giroa eta dendak ezagutzeko.

ESKORIATZA

Jim TNT bakarlariak emanaldia egingo du

I.B. > ESKORIATZA

Datorren domekan, hilaren 24an, Jim TNT bakarlari arrasatearrak kontzertua egingo du Inkernu tabernan.

Emanaldia 22:30ean izango da, eta ez dute sarrerarik kobratuko.

GONBIDATUEKIN

Jim TNT Jaime Lizaranzu musikaria da, eta, Inkernuko emanaldian, hainbat gonbidatu izango ditu: Honky Tonks taldeko Andoni Zubiaga, The Jukebox taldeko Aitor Agirre eta beste batzuk.

Los Cretinos taldeko abeslari eta gitarra-jole Jaime II. Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketako bakarlari onenaren saria irabazi zuen urtarrilean.

Bestalde, Lizaranzuk gidatzen duen Los Cretinos taldeak diskoa kaleratu zuen orain dela gutxi, eta apirilera Londresen joko dute.



AURKEZPENA Ezkerretik, Erostarbe, Etxaniz eta Castro.

A.I.

ANTZUOLA > ZUTIK, EZKER BATUA ETA ARALAR

Pilar Etxaniz, Aralar, EB eta Zutikeko zerrenda burua

Hiru alderdi horiek batera aurkeztuko dira udal hauteskundeetara, eta Zutik taldeko Pilar Etxaniz izango da koalizioko alkategaia

AINZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Eguenean, hilak 15, koalizioaren jendaurreko aurkezpena egin zuten Aralar, Zutik eta Ezker Batua alderdietako ordezkariak. Honako hauek izan ziren hizlari: Pilar Etxaniz (Zutik), Patxi

Castro (Ezker Batua) eta Oxel Erostarbe (Aralar). Pilar Etxaniz izango da zerrenda burua; asteotan jakinaraziko dute zerrenda osoa.

Honakoa esanez hasi zuten ekitaldia: "Ikuspegi politiko-ide-

ologiko multzo handi bat Udalean ordezkatu barik dago".

EZKERTIARRAK

Ezkerrean kokatzen dute euren burua, eta hortxe, halaber, euren ekarpena. Euren ildo eta asmo nagusiak ere aipatu zituzten, hala nola, herritarren partaidetza bultzatzea, etxebizitza politikaren norabidea aldatzea, eta herriaren garapen orekatua eta kohesio soziala bultzatzea.

ELGETA > APIRILERA ATZERATU DITUZTE EKIMENAK

'Intxortako Atea' ekimenaren egitaraua atzeratu egin dute

Eguenean, 'La Guerra Civil en Eibar y Elgeta' liburua aurkeztuko dute Espaloian

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hasieran martxoan egitekoak baziren ere, *Intxortako Atea* ekimenaren barruan antolatutako egitaraua apirilera arte atzeratu dute.

Apirilaren 14an, 36ko Gerran Intxortako Frontean izandako gertaeren inguruko erakusketa inauguratuko dute Espaloian. Apirilaren 19an, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Elgetan izango dira, Juan Jose Arangu-

ren artistaren *Intxortako Atea* eskulturaren inaugurazioan.

Hamar egun eta gero, apirilaren 29an, Intxortako frontea defendatu zuten gudari eta miliziarrei omenaldia egingo diete Elgetako plazan. Ondoren, bazkaria egingo dute frontoian. Prezioa 22 euro da.

LIBURU AURKEZPENA

Egitarauaren lehenengo hitzordua, baina, egunean, hilaren 22an, izango da. Jesus Gutierrez historialariaren *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta* liburuaren aurkezpen ekitaldia egingo dute. Liburuak bi herriotan gerran izandako gertaera nagusiak jasotzen ditu. Aurkezpena Espaloian egingo dute, 19:30ean.



EGILEA Jesus Gutierrezek liburua aurkeztuko du.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ARAMAIO > UDAKO AUKERAK

Arabak gazteei udarako eskaintzen dizkien ekintzetan izena emateko epea zabaldu dute

Udalekuak, bidaiak, ingeles udalekuak edo barnetegia aukera daitezke

Martxoaren 22tik apirilaren 4ra bitartean eman behar da izena, Diputazioan

U.M. > ARAMAIO

Arabako Foru Aldundiak, probintziako gazteei begira, lau egitasmo ipini ditu aukeran, aurtengo udan egiteko.

Batetik, 1994 eta 2000. urte bitartean jaiotakoendako (biak barne), udalekuak antolatzen ditu. Hain zuzen ere, euskarazko edo espainolezko txandak daude, eta baita txanda elebidunak ere. Udako kolonia eta kanpamenduak sartzen dira eskaintza horren barruan.

GAZTE BIDAIAK

Bestalde, 1989ko abuztuaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako gazteei begira, bidaiak antolatzen ditu Diputazioak. Aisialdi komunitario eta jolasgarria bultzatu nahi dute bidaia horien bitartez.

Ingeles udalekuak aukera ditzakete, berriz, 1992-1994 urteen bitartean (biak barne) jaiotako gazteek. Ekimen horren helburua da bertan parte hartzen duten gazteek ingeleza eguneroko bizitzan erabiltzea. Hala, eskola orduak zein aisialdia lantzen dituzte, barnetegi batean. Eskatzen duten ingeles maila parte-hartzaileen ikas-mailakoa da.

1993 eta 1997 urteen bitartean (biak barne) jaiotako gazteek uda barnetegiak ere badituzte aukeratzeko. Kasu horretan, ekimen horren helburua hau da: ikasturtea hasi baino lehenago eta udako etenaldiaren ostean, euskara erabiltzen eta ikasten berriro hasteko modua ematen dien jarduerak egitea. Barriako aterpetxean izaten dira barnetegi horiek.

IZENEMATEAK

Hiru aukeretako edozeinetan izena emateko epea zabalik dago martxoaren 22tik apirilaren 4ra bitartean. Hain zuzen ere, bi egun horietan 08:30etik 15:00etara joan beharko da Gasteizen Arabako Foru Aldundiak duen bulegora, Jesusen Zerbitzarien kaleko 5era, alegia. Martxoaren 28an eta apirilaren 4an, eguaztenak, arratsaldean ere onartuko dituzte izenemateak, 16:30etik 18:30era bitartean.

Bestalde, Diputazioaren bulegoetara jo beharrean, Internet bidez ere eman daitezke izena; www.alava.net/ifj webgunera jo besterik ez dago.

ERROLDATZE ZIURTAGIRIA

Aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, eskatzailearen erroldatze ziurtagiria, udal txanekin eskatu beharrekoa, eman behar da.

Internet bidez izena ematen duten gaztetxoek, berriz, geroago aurkeztu beharko dute ziurtagiri hori.

Argibide gehiago behar izanez gero, 945 18 19 95 telefonoan galde daitezke.

LEINTZ GATZAGA

Arlabango hirigintza ekintzen plana

L.K. > LEINTZ GATZAGA

Arlabango gaineko Plan Bereziaren hasierako onespina egin zuen Udalak joan den egunean, hilak 15, egin zuen osoko bilkuran. Hirigintza arloko araua da hori, eta Arlabango ingururako hirigintza ildoak finkatzen ditu. Hala ere, hasierako onarpenera besterik ez da izan.

Onarpen horrekin, orain arte egin den lana onartu egin du Udalak, eta aurrerantzean egingo dena arautzeko bidea zabaldu du.


Hemendik 15 bat egunera, alegazioak aurkezteko epea zabalduko da.

Arlabango landa guneari eta hango turismo baliabideei eragiten die arauak: besteak beste, hango jatetxeak, taberna...

Kirola



> **FUTBOLA**
Lehenengo erregional mailan, Bergarak galdu egin du > 18



> **ESKUBALOIA**
Bergarak samur hartu du mendean Bizkaiko txapelduna > 19



> **SASKIBALOIA**
Gazte mailako Mugarri Alkesak 105-68 irabazi du Iturripen > 19



> **DUATLOIA**
Mikel Elgezabal nagusitu da XVI. Oñatiko Duatloian > 20-21

ESANAK

"Berbetan baino hobeto, korrika moldatzen naiz; hala ere, eskerrak eman nahi dizkiot federazioari"

Iker Karrera > Saritua

"Federazioaren laguntza ezinbesteko izan da aurtengo denboraldi onean; eskerrak eman gura ditut sariarengatik"

Patxi Usobiaga > Saritua

"Ez dakit merezitako saria den, baina federazioa eskertu gura dut. Lagun asko ibili da mendiari laguntza ematen"

Patxi Basauri > Saritua



SARITUAK Irudian, egubakoitzeko galan saritutako guztiak, saria eskuetan dutela.

JOSETXO ARANTZABAL

MENDIA > EUSKAL HERRIKO MENDI FEDERAZIOAREN GALA EGIN ZUTEN ELGETAN

Elgetako Espaloia bete egin zen mendizaletasuna saritzeko

SARIAK

Euskal Herriko Mendi Federazioak bederatzi sari banatu zituen Espaloia antzokian

PROIEKZIOA

Adolfo Madinabeitiak Pakistanen hartutako irudiak ikusteko aukera egon zen

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Euskal mendizaletasunak merezitako gala izan zuen egubakoitzean, Elgetako Espaloia antzokian. Urtarrilaren 26an egin behar zen gala, baina, elurrarengatik, atzeratu egin zuten. Egubakoitzean, baina, galak ez zuen inolako oztoporik izan.

HARRERA ETA PROIEKZIOA

Aurreikusitako orduan hasi zen ekitaldia: arratsaldeko 6:30ean, Elgetako musika eskolako haurrek kontzertu txiki bat eskaini zuten. Ondoren, Adolfo Madinabeitia mendizalearen bideo proiektzioa ikusteko aukera egon zen Espaloian. Pakistanen grabatutako irudiak eskaini zituen Madinabeitiak.

Poliki-poliki, Espaloia antzokia bete egin zen; han ziren sarituak eta Euskal Herriko Federazioko ordezkariak. Baita diputa-

zioko ordezkariak ere; tartean, Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Diputazioko Kirol zuzendaria.

Proiektzioaren ondoren, sari banaketarekin hasi ziren.

BEDERATZI SARI

Aurkezle lanetan, Aitor Elduaieen irratia esataria aritu zen. Hark aurkeztu zituen, banan-banan, saritu guztiak. Sariak banatzera,

Patxi Basauri, jasotako sariarekin pozik

Elgetako alkateak, Patxi Basaurik, Antxon Bandres saria jaso zuen, Pako Iriondo, Euskal Herriko Mendi Federazioko presidente ohiaren eskutik. Kolaborazio interesgarrienarengatik saritu zuten Basauri. Egun berezia izan zen, izan ere, elgetarren aurrean jaso zuen alkateak federazioaren saria. "Alkate izan edo ez, mendizaleok beti izango nauzue laguntzeko prest", esan zuen Basaurik, pozik.



Patxi Basauri eta Pako Iriondo.

J.A.

Arantza Jausoro, federazioko presidentea, eta Pako Iriondo, presidente ohi, igo ziren.

Guias Vascos de Montaña argitalpena, Arantza Lazurtegi, Iker Karrera, Izaskun Zubizarreta, Xabier Altzola eta Alberto Zerain, Patxi Usobiaga, Alberto Morais, Gipuzkoako Kutxa eta Patxi Basauri, Elgetako alkatea, izan ziren sarituak.

Horren ondoren, Pyrenaica sariak banatu zituzten: mendiko argazki sariak, mendiko artikuluei sariak eta *Pyrenaica lagunak* sariak. Amaieran, saritu guztiak taldeko argazkia atera zuten.

Euskal mendizaletasunaren festa borobiltzeko, Elgetako abesbatzak emanaldia egin zuen. Horren ondoren, sarituek batera afaldu zuten Espaloian bertan. Ekitaldia amaitzeko modu bikaina izan zen.



SENIOR MAILAKO NESKAK

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Antonio Pavo (delegatua), Yaiza Exposito, Valen Pajuelo (2. entrenatzailea), Nerea Etxeberria, Txema Sanchez (entrenatzailea), Ixone Serrano eta

Erdiko ilaran, ezkerretik hasita: Leire Balzategi, Marta Calderón, Maite Usabiaga eta Andi Caceres.

Behoko ilaran, ezkerretik hasita: Ainhoa Alarcia, Aitziber Soriano eta Olatz Laborda. Argazkian, Eukene Etxebarria eta Carmen Gomez falta dira.

Kirol Elkartea 06-07 (saskibaloia saila)



Juani Murillo (delegatua).

GAZTE MAILAKO NESKAK



KADETE MAILAKO NESKAK



LEHENENGO ERREGIONALA > 24. JARDUNALDIA

Etxekoak saiatu ziren, baina ezin izan zuten Elgoibar menderatu

BERGARA

1-2

ELGOIBAR

Bergara > Julio (Unai, 80. min.), Oregi, Lazpiur, Urteaga (Julen, 45. min.), Nafarrete, Eldin, Eloy (Canas, 50. min.), Aitor (Ander, 60. min.), Imanol, Diego eta Martin.

Elgoibar > Laris, Armen, Anton, Muxi II. (Gazta, 70. min.), Marti, Trontzo, Conde, Antuan, Muxi I. (Elus, 55. min.), Jau eta Prosi.

Bestelakoak > Epailak ez zuten arazorik izan; lan ona egin zuten.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Saiatu arren, Bergarak ezin izan zuten Elgoibar mendean hartu zapatuan Agorrosinen. Etxeko jokalariek lan txukuna egin zuten, batez ere, lehenengo zatian. Bigarrenean, baina, behera egin zuten mahoneroek eta, azkenean, Elgoibarrek markagailuan hartutako errenta berdintzeko gai ez ziren izan.

ZELAI ERDIAN, LAN ONA

Partiduko lehenengo aukera etxe-koentzat izan zen: 15. minutuan, eskumako hegaletik erdiratutako baloia aurrelariak buruz ukitu eta, azkeneko momentuan, Elgoibarko atzelari batek baloia urruntzea lortu zuen.

Biek ala biek zelai erdiaren jabetza lortu gura zuten; hala, baloia ondo mugitu zuten zelai



IMANOL Irudian, Imanol, baloiarekin, bi aurkariren aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

erdian, baina aukera garbirik egin gabe.

Elgoibarren lehenengo gola area ertzeko falta baten ondoren izan zen, 40. minutuan. Atsedenera, etxekoak markagailuan atzetik iritsi ziren. Bigarren zatia

hasi bezain laster, Elgoibarrek bigarrenena egin zuten; Bergarak atzean baloia galdu eta Elgoibarko aurrelariak baloia sareetan sartu zuten.

Etxekoan gola partidua amaitzeko 10 minutu falta zirela iri-

tsi zen: Canasek eskumako hegaletik erdiratu eta Andonik baloia Elgoibarkoen atean sartu zuen.

Zapatukoarekin, Bergarak lau partidua jarraian galdu ditu. Datorren astean, Segurara egingo dute bisita mahoneroek.

EMAKUMEZKOEN MAILA > KOPA TXAPELKETA

UDA nagusitu zen Oñatin jokaturako nesken derbian

ALOÑA MENDI

1-2

ARIZMENDI UDA

UDA eta Aloña, eta hori zelaietan nabaritu egin zen. Aretxabaletakoak bigarrenak dira, eta Oñatikoak, seigarrenak.

ATSEDENEAN, UDA AURRETIK

Hasieratik, aurretik izan zen UDA atzo Ibarren. Lehenengo gola Aretxabaletako neskek egin zuten. Berdinketa, penalti bidez, Maria Azpitartek lortu zuen.

Berdinketarekin, Aloña aurrera atera zen, garaipenaren bila; baina, gola egin beharrean, jaso egin zuten. Kontraeraso batean, Aretxabaletako taldeak garaipena emango zion gola egin zuten. Azkenean, hiru puntuek Aretxabaletara egin zuten ihes.



LEHIA Arizmendiko eta Aloñako jokalariek bana, lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

A.G. > OÑATI

Kopa txapelketako seigarren jardunaldia jokatu zuten atzo, domeka, Oñatiko ibarra futbol zelaietan. Lehian, ibarreko bi talde izan genituen: Aloña Mendi eta Arizmendi UDA. Amaieran, aretxabaletarrak nagusi izan ziren oñatiarren etxean.

Sailkapenean oso egoera ezberdinean dauden bi talde dira

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	55	26
2. Hernani	49	26
3. Zestoa	43	26
4. Ordizia	41	26
5. Anaitasuna	40	26
6. Berio	39	26
7. Mondra	38	26
8. Trintxerpe	38	26
9. UDA	34	26
10. Aloña	34	26
11. Touring	34	26
12. Aurrera	33	26
13. Hondarribia	29	26
14. Idiazabal	29	26
15. Mutriku	23	26
16. Pasaia	23	26
17. Martutene	22	26
18. Urola	19	26

Emaitzak

Aurrera-UDA	0-1
Ordizia-Zestoa	0-2
Hondarribia-Aloña Mendi	0-1
Hernani-Zarautz	0-0
Pasaia-Trintxerpe	1-5
Martutene-Mondra	1-1
Urola-Idiazabal	0-1
Mutriku-Berio	0-0
Touring-Anaitasuna	1-1

Hurrengoak

Zestoa-Aurrera	
Aloña Mendi-Ordizia	
Zarautz-Hondarribia	
Trintxerpe-Hernani	
Mondra-Pasaia	
Idiazabal-Martutene	
Berio-Urola	
Anaitasuna-Mutriku	
UDA-Touring	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Elgoibar	1-2
------------------	-----

BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Gazteak-Elgeta	1-2
BTLS-Soraluze	2-2
Antzuola	atsedena

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Urki-UDA	4-5
Mondra	atsedena

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Mondra-Vasconia	1-0
BTLS-Luberri	3-1

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Aloña Mendi-Arizmendi UDA	1-2
---------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Elgoibar	3-0
UDA-Vasconia	4-3

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Bergara-Hondarribia	3-2
---------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

Tolosa-UDA Arizmendi	2-1
----------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Touring-UDA Arizmendi	2-1
Zarautz-Bergara	3-4

OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Hernani-Arrasate	4-0
------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA

Bergara B-Ikasberri	2-1
---------------------	-----

KADETE NESKAK

Arizmendi UDA B-Intxaurdi	2-2
---------------------------	-----

EMAKUMEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA

Arizmendi UDA-Oiartzun	1-1
------------------------	-----

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA

Bizkaiko txapeldunari samur irabazi dio Bergarak, igoera faseko lehenengo lehian

BERGARA

30-25

URDULIZ

Bergara > Kapelastegi, Uribe (2), Ugalde (6), Sanchez (1), Najera, Najera (3), Plazaola (6), Lenisoro, Zabaleta, Larrañaga (4), Pozo (4), Zangitu, Agirre (4) eta Manuel.

Urduliz > Izquierdo (7), Elorriaga, Turiel (3), Momeñe, Gomez, Mainer (2), Mendia (8), Ciriero (5), Albizuri eta Arteta.

Golak bost minuturo > Atsedena: 17-10, 20-11, 22-13, 23-16, 26-20, 28-23 eta 30-25.



PLAZAOLA Irudian, Mikel Plazaola, jaurtiketa egiteko prest.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarak ezin hobeto hasi du Euskadiko Txapelketarako igoera fasea. Zapatuan, Labegaraietan, samur nagusitu zitzaion Gipuzkoako txapelduna Bizkaiko txapeldunari.

Bergarak Urduliz izan zuen aurrean, igoera faseko lehenengo lehian. Etxekoak indartsu ateratu ziren Labegaraietako kantxara; hala, lehenengo zatian lortutako abantaila nahikoa izan zuten partidua irabazteko.

DEFENTSAN, BIKAIN

Bergarak oso joko ona egin zuen lehenengo zatian. Defentsan, bikain aritu ziren Muniategiren mutilak eta, horri esker, kontreraso asko egin zituzten. Etxeko-

ak partiduaren jabe egin ziren; joko bizkorraz baliatu ziren aurkaria mende hartzeko. "Guk jarri dugun erritmoari ezin izan diote eutsi", adierazi zigun

Muniategik partidu amaieran. Atsedenean, 17-10 aurretik ziren bergararrak.

Bigarren zatian, lehia zerbait nahastu egin zen. Bizkaitarrak

gogor aritu ziren; Urdulizko mutilak falta itsusiak egin zituzten Labegaraietan. Gainera, azkeneko ordu laurdenean, epailea txar to aritu zen.

DATORREN ASTEAN, LEIOARA

Bigarren jardunaldia Leioako Gaztelueta taldearen aurka jokatuko dute Bergarako mutilak datorren aste bukaeran.

emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILA NAZIONALA

Ford Mugarri-Corazonistas 28-27

EUSKADIKO GOREN MAILA

Bera Bera-Verkol Aloña 16-25

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO, IGOERA FASEA

Bergara-Urduliz 30-25

GAZTE MUTILAK

Amenabar-Bergara 20-28

Egia-Aloña 38-32

GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA

Cocina Aiala-Verkol Aloña 32-11

KADETE MUTILAK

Katilu-Aloña Mendi 39-36

KADETE NESKAK, EUSKADIKO TXAPELKETA

Alaves Ehari alde-Verkol Aloña 18-26

KADETE NESKAK, UDABERRI SARIA

Arrasate-Pulpo 6-39

SASKIBALOIA > EUSKAL LIGA

Arazo barik irabazi zuten atzo Mugarri Alkesako gazteek

Atsedenean, hamaika puntuko errenta zuten arrasatearrek, baina amaieran garaipen zabala lortu zuten

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Euskal Ligako zazpigarren jardunaldiko partidua jokatu zuten atzo gazte mailako Mugarri Alkesak eta Durangoko Tabirakok.

Azkenean, espero baino garaipen erosoagoa lortu zuten arrasatearrek: 105-68.

DEFENTSAN ETA ERASOAN, ONDO

Joan den aste bukaeran, Baskoniaren aurka jasotako porrot

mingarriari aurre eginez, garaipen zabala lortu zuten Baltzategiren eta Zurbanoren mutilek.

Partidu hasieratik, defentsan sendo aritu ziren eta, erasoan, saskiratze errazak lortu zituzten. Hala, berehala zabaldu zuten tarte markagailuan: bigarren tarteetan, 20 puntuko errenta izan zuten. Bada, atsedenean, 11 puntuko alde zuten etxekoek.

Atsedeneko aholkuak entzun ondoren, joko azkarrari esker, Mugarri Alkesak arazo barik menderatu zuen partidua. Laugarren tarte hasi orduko, erabakita zegoen lehia, etxeko alde.

Domekan, Iturripen jokatu du, berriro ere, Easo A taldearen aurka. Norgehiagoka hamabietan hasiko da.



BALOIA Antton Hernandez (11), erasoan, baloia eskuetan duela.

JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Tabirako-Mugarri Alkesa 73-95

SENIOR MUTILAK

Candy-Aloña Mendi 81-57

Katu kale-Ointxe Arrasate 61-71

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Andraitx 46-40

Oiarso-Aloña Mendi 43-32

GAZTE MUTILAK, EUSKADIKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-Tabirako Baque 105-68

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Goierri 65-61

GAZTE NESKAK

Kortazar-Txirrita-Antigua Luberrri 41-51

Biurrena-Eskoriatza 26-44

KADETE MUTILAK

Construcciones Alkesa-La Salle 102-39

Aloña Mendi-Easo Ibaia 25-81



PODIUMA Argazkian, maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuak: Inmaculada Pereiro, Laurent Galinier, Virginia Berasategi, Mikel Elgezabal, Patxi Urizar eta Inma Rafael.

MIREIA BIKUÑA

DUATLOIA > OÑATIKO PROBA

Deskargan lortutako errentari esker irabazi zuen Elgezabalek

Mikel Elgezabalek Laurent Galinier, irabazteko faboritua, atzean utzi zuen Deskargako azkeneko kilometroetan

Virginia Berasategik irabazi zuen emakumezkoen proba, Espainiako txapeldunarekin, Inmaculada Pereiroekin lehia estua izan ondoren

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Duatloiko zatirik gogorrena, Deskargako igoera, aprobetxatu zuen Mikel Elgezabalek, iazko irabazlea eta zapatuko proba irabazteko faboritua, Laurent Galinier, atzean uzteko. Hala, 28 segundoko abantailarekin iritsi zen helmugara Gernikako lasterkaria.

Profesional mailako txirrindularia izandako Mikel Elgezabalek 1:40:22ko denbora egin zuen. Laurent Galinier eta Patxi Urizar sailkatu ziren bigarren eta hirugarren tokietan.

283 PARTE-HARTZAILE

Arratsaldeko 4etan hasi zen Oñatiko Duatloia 16. edizioa; plazako irteeran, 283 parte-hartzaile elkartu ziren.

Lehen proban, zortzi kilometro bete behar zituzten korrika, herriko kaleetan zehaztutako zirkuitu batean. Lehen lau kilometroak beteta, helmugatik Galinier eta Antxintxika taldeko Ander Agirre pasatu ziren lehenengo. Haien atzetik, beste taldetxo baten, bizikletan espezialistak diren Elgezabal eta Urizar pasa ziren. Halaber, lasterketa burua

asko aldatu zen, boxetan bizikleta hartzeko ordua iritsi zenean. Galinier oso aurreratuta iritsi zen plazara; haren atzetik, Steven MacGregorrek, Ander Agirrek eta Zuhaitz Ezpeletak egin zuten aldaketa. Une hartan, Mikel Elgezabal 11.a zen.

40 KILOMETRO BIZIKLETAN

Bizikletak hartuta, lehiakideek Bergara aldera hartu zuten, eta handik, Antzuolara, Deskargako gaina, Legazpira eta Udana gainetik Oñatira buelta egiteko.

Antzuolara iritsi orduko, atzeko taldeak bat egin zuen Laurent Galinierrekin. Galinierrek, Urizarrek eta Elgezabalek kilometro batzuk elkarrekin egin ondoren, Deskargako azken aldapetan erasora jo zuen Elgezabalek. Txirrindulari ohia denez gero, berehala utzi zituen atzean aurkariak, eta bi minutuko errentarekin iritsi zen Udana mendateko gainera.

Hala, errenta hark garaipena lortzeko bidea eman zion.

EMAKUMEEN LASTERKETA

Gizonezkoen lasterketaren antzera, emakumezkoen proban ere lehia handia egon zen; batez ere, Virginia Berasategi eta Inmaculada Pereiroren artean.

Basauriko atleta aurretik jarri zen bigarren kilometroan, eta ez zuen lasterketa burua utzi proba osoan zehar. Hala, Berasategi izan zen onena korrikako lehen saioan eta bizikletako saioan. Korrikako bigarren saioan, aurretik lortutako errentari eutsi zion. Hortaz, garaipena bizkaitarrak eskuratu zuen, 1:54:55eko denborarekin. Inmaculada Pereiro eta Inma Rafael sailkatu ziren, hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren.

DEBAGOIENDARRAK

Oñatiko probako lasterkako lehen saioan, Debagoieneko lehiakideek euren maila erakutsi zuten. Aurrean ikusi genituen Ander Agirre eta Zuhaitz Ezpeleta, Antxintxika taldekoak eta Iñaki Pelayo oñatiarra, besteak beste.

sailkapena

LEHENENGOAK

1. Mikel Elgezabal	1:40:22
2. Laurent Galinier	1:40:50
3. Patxi Urizar	1:42:02
4. Gorka Mujika	1:42:53
5. Aitor Alberdi	1:43:01
6. Michel Aginaga	1:43:21
7. Davis San Martín	1:43:28
8. Zuhaitz Ezpeleta	1:44:14
9. Steven MacGregor	1:44:32
10. Fernando García	1:44:55
11. Axier Eskisabel	1:45:06

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

8. Zuhaitz Ezpeleta	1:44:14
12. Ander Agirre	1:45:08
18. Ricardo de Goñi	1:45:53
20. Iñaki Pelayo	1:46:31
22. Beñat Arnaiz	1:47:06
32. Eduardo Jimenez	1:48:50
54. Asier Oizartabal	1:51:06
55. Iban Uribetxeberria	1:51:07
56. Jose Xabier Ugarte	1:51:32
70. Jon Zelaia	1:52:55
73. Raul Montiel	1:52:58



IRTEERA 283 lehiakidek hartu zuten irteera zapatuko proban. Argazkian, parte-hartzaileak, irteteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL



LASTERKA Ander Agirre (5) eta Zuhaitz Ezpeleta (8), argazkian.

J. ARANTZABAL



BIZIKLETA SAIOA Parte-hartzaile batzuek zerbait jateko aprobetxatu zituzten bizikleta saioaren lehen kilometroak.

J. ARANTZABAL



ALDAKETA Bizikletak utzi eta zapatilak janzten.

J. ARANTZABAL



IRABAZLEA Virginia Berasategi, helmugan.

J. ARANTZABAL

ESANAK

"Bizikletako saioan errenta atera diet Laurent Galinierri eta Patxi Urizarri, eta hortxe egon da lasterketa irabazteko gakoa"

Mikel Elgezabal > Gizonezkoetan, lehena

ESANAK

"Inma Pereirokekin lehia gogorra izan dut; gogorra eta polita. Hortaz, gaur, sufritu eta ondo pasatu dudala esan behar dut"

Virginia Berasategi > Emakumeetan, lehena

ESANAK

"Oso pozik nago egin dudan lanarekin. Halaber, asko sufritu dut, nirekin batera taldean egon direnek maila oso ona dute-eta"

Iñaki Pelayo > Oñatiko lehena


ESANAK

"Lasterketa ederra ikusi dugu. Iaz, Galinierrek nagusitasun osoz irabazi zuen, eta aurten, lehia estuagoa egon da"

Unai Pedregal > Antolatzaile taldekoa

Zorionak irabazleoi!

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk, bere harpidedunen artean zozketatu dituen "Eutsi" filmaren kamiseta eta sarreren irabazleak honakoak dira:



"Eutsi" filmaren 18 kamiseten irabazleak

- Guadalupe Goikolea Zabala (Arrasate)
- David Blazquez Diaz (Oñati)
- Iñaki Aranzabal Zabala (Arrasate)
- Santiago Ruiz Ansotegi (Osintxu)
- Arantzazu Barrutia Mitxelena (Bergara)
- Angel Mari Idiakez Aranburu (Antzuola)
- Arantzazu Garcia Azkoaga (Arrasate)
- Vicente Markuleta (Oñati)
- Peio Olabe Aranburuzabala (Aretxabaleta)
- Maite Uriarte Isaszelaia (Arrasate)
- Joxe Migel Bolivar Egibar (Bergara)
- Iban Barrutia Inza (Bergara)
- Luis Mari Otxoa Arrese (Aretxabaleta)
- Jose Antonio Elexpuru Unzueta (Aretxabaleta)
- J.J Enekotegi Ruiz de Azua (Eskoriatza)
- Miren Iñarra Balerdi (Bergara)
- Ihintz Bengoa (Arrasate)
- Iñaki Larrañaga Alberdi (Bergara)

"Eutsi" filma ikusteko 2 sarrera pertsonako

- Karmen Arabaolaza Alberdi (Arrasate)
- Fernando Calvocheaga Zabaleta (Bergara)
- Josu Biteri Orobengoa (Eskoriatza)
- Bittor Kortabarria Ortueta (Aramaio)
- Marilu Guridi Arregi (Oñati)

Sariak jasotzeko pasa zaitzete, martxoaren 12tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera (09:00-13:00 / 14:30 - 18:30)

**Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:
GOIENKARIA
Irizar Jauregia - Barrenkale 33
BERGARA**

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:
GOIENA
Nafarroa Etorbidea 2 - 1. solairua - 5. atea (Saiolan Eraikina)
ARRASATE**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**ASTELEHENEKO GOIENKARIA,
urte osoko harpidetza,
35 euroren truke (902 36 38 51)**



> **KORRIKA**
Korrikarendako giroa prestatzeko, hainbat ekintza izango dira > 24



> **HIRU TALDE**
Keike, Une eta Kauta taldeek kontzertua egin zuten Oñatin > 26



> **ABESBATZAK**
XX. Eskola Arteko Abesbatzen Topaketak izan ziren Arrasaten > 26



> **THE 5 TWISTERS**
Diskoa aurkeztuko du talde horrek datorren egubakoitzean > 27

Kulturaren ate berria inauguratuta dago

Inaugurazioa hasteko, aureskua dantzatu zuten Arrasateko dantzariak

Alkateak eta Ahaldun Nagusiak gidatu zuten ekitaldia

Herriko bost artistaren erakusketa zabaldu zuten: Arregi, Goikolea, Landaluze, Lopez eta Riviereren lanak daude



EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Egubakoitzean, 18:30ean, Kulturaren inaugurazio ofiziala egin zuten. Arrasateko alkate Inazio Lakuntza eta Aldundiko diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarririk gidatu zuten inaugurazio ekimena.

JENDE UGARI

Hasteko, aureskua. Arrasateko txistulari eta dantzariak aureskua dantzatu zuten, inaugurazioa modu onean hasteko. Lakuntza eta Txabarririk ez ziren izan kultur etxearen aurrean agertu ziren korbatadun bakarrak: eskualdeko alkate eta zinegotzi ugari batu ziren bertan, baita eskualdeko mankomunitateko ordezkariak ere. Herritarren artean ere, ikusmira sortu zuten, eta, azkeneko, jende taldea bildu zen kultur etxe berriaren kanpoan egiten ari zirenak ikusteko.

Auresku ostean, zinta mozteko ordua iritsi zen. Artaziak hartu eta herriko alkate zein Aldundiko diputatu nagusiak zati bat baino gehiago moztu zituzten, bertan zeudenei banatu ahal izateko.

Ateak irekita zeuden, bada, eta barrura sartzeko momentua ere iritsi zen. Ekitaldiaren bi gidariek hitz batzuk eduki zituzten bertan batutakoentza-



MOMENTU EZBERDINAK Aureskua, zinta mozteak, erakusketaren inaugurazioa eta luntxa.



JOSETXO ARANTZABAL/EDURNE BURGAÑA

ko. Inazio Lakuntza alkatea izan zen lehena berba egiten. Arrasaterentzako horrelako eraikin bat edukitzea "garrantzitsutzat" jo zuen. "Eraikuntza eginda dago; orain, beste kontu bat izango da kultur zein gizarte arloetako ekitaldiak bertan egitea", gehitu zuen alkateak. Kultura eta aisialdian "gabeziak" zeudela ere aipatu zuen eta, proiektu berri honekin, "kultura suspertzea" lortuko delakoan dago Lakuntza. "Zabalik zegoen aurretik, baina,

gaurtik, ofizialki inauguratuta dago", gehitu zuen.

Txabarririk dagokionez, kulturaren garrantziaz berba egin zuen: "Gipuzkoa Hiria proiektuaren barruan, kulturagintzak eta euskalgintzak izaera jakin bat dute, eta kulturagintzari bere garrantzia ematen saiatu gara. Ate berri bat ireki dugu. Orain, arrasatearrek erabili egin behar", adierazi zuen.

Instalazioak bisitatzeko aukera egon zen, proiektuaren

arduraduna aurrean zihoala, eta, bide batez, herriko bost artistak jarritako erakusketa zabaldu zuten klaustroan. Iñigo Arregi, Juan Luis Goikolea, Kepa Landaluze, Melina Lopez eta Iñaki Riviereren lanak batzen ditu erakusketa horrek.

Melina Lopezen *Sentsazioak*: alanbre, igeltsu eta egurrezko eskulturak, zeramikak eta bidimentsioko margolanak. Landaluzeren *Ker-ker*: 33 piezarekin osatutako burdinazko eskultura.

Riviereren 15 margolan: gehienak, azken bi urteotakoak, eta bat, gainera, oraindik amaitzeke. Goikoleak, oster, 12 margolan eron ditu, eta Arregirik hamar eskultura eta lau margolan jarri ditu. Aukera bikaina herriko artisten lanak ezagutzeko.

Luntxa ere egon zen, ekitaldiari amaiera emateko. Ez daki gu ordua zelako, edo doan zelako, baina hantxe batu zen jende gehien. Jateko eta edateko zer harrapatuko.

KORRIKA > ONGIETORRIA

Egubakoitzean iritsiko da Korrika Debagoienera; ongietorria gertu dago

Korrika Txikia egingo dute eskualdeko herri guztietan, Korrikari ongietorria emateko

Festa giroa sortzeko eta umeak alaitzeko ekimenak ez dira falta izango bertoko herrietan

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Eguenean hasiko da aurtengo Korrika Karrantzatik, eta egubakoitzean ailegatuko da gurera, 23:35ean, Gatzagara. Korrikari ongietorria egin eta festa giroa sortzeko, egubakoitzerako ekintzak antolatu dituzte bertokoek.

Gatzagan, 11:00etan, Korrika Txikia egingo dute. 17:00etan, pailazoak, eta 18:30ean, zirko jolasak egongo dira. 20:00etan, afaria kultur etxean trikitilariekin.

Eskoriatzan ere, Korrika Txikia egingo dute, 15:30ean hasita, Intxaurtxueta auzoan, eta herriko plazan amaituko dute. 16:30ean, umeendako baserri giroko artzain jolasak egingo dituzte eta, 17:00etatik aurrera, Korrikako arropak erosteko aukera egongo da plazan jarriko duten mahaian. Ordu erdi eta

gero, txapa tailerra eta Korrikarako dirua batzeko txapa salmenta hasiko dute gaztelekuko gazteek. Txistulariekin, dantza erromeria ere egingo dute, 19:00etan, herriko plazan. 21:00etan, pilotalekuan afaria egongo da. Joan nahi dutenek txartelak Goxo-txiki eta Inkernu tabernetan eros ditzakete. Afalostean, kalejiran pilotalekutik gasolindegira joango dira, Korrika hartzera.

TARTEKIA

Aretxabaletakoak ere ez dira atzean geratu: Korrika txikia 15:30ean egingo dute. 16:30ean, bolo-boloa plazan, Kurtzebarriko balkoitik, eta, ostean, umeendako herri kirolak. Trikitilari eta buruhandiek kalejira egingo dute 18:30ean hasita. Ondoren, 19:00etan, Larrin dantza egingo dute Josu



ANTZUOLA Txikienek ongietorria egingo diote egubakoitzean Korrikari. ARTXIBOA

parean, eta gero, txistorrada eta poteoa. Koadrilen arteko afaria ere egingo dute, 21:00etan; bakoitzak jatekoa eroan beharko du. Bertan, sagardo upela egongo da, eta Iñigo Basaberekin dantzaldia, afalostean. Korrikari ongietorria egingo diote aretxabaletarrek, eta Korrika ostean, txokolatada.

Arrasaten, Korrika Txikia 15:00etan hasiko dute, eta plazara heldutakoan, merendola jan-

go dute. Txatxilipurdioek antolatutako berbena, dantza eta jolasak egongo dira jarraian, 16:30ean hasita. 19:00etan, Arrasate Musikalen bandarekin, kalejira egongo da, eta 21:00etan, herri afaria Uarkapen, bertsolari eta trikitilariekin. Ostean, kalejiran Mekaraino joango dira, ongietorria egiteko, eta, Korrika plazatik pasatzean, txalapartariak arituko dira bertan.

Oñatikoek Korrika Txikia 15:30ean egingo dute, eta 17:00etan, artzain jolasak. 19:00etan, txorimaloak eta txistulariak ibiliko dira kalean, eta trikipoteoa izango da, 20:00etan hasita, herriko trikitilari eta bertsolariekin. Korrika etorri arteko kale giroa egongo da.

Antzuolan, 16:00etan, Korrika Txikia egingo dute eta, gero, umeendako jolasak. Olanan etxean, EHEren erakusketa ibiltaria egongo da asteburuan. Domekan ongietorria etxafuegoekin egingo dute; gero, txokolatada.

Bergaran, zapatuan, Korrika Txikia 15:15ean egingo dute, eta 17:00etan, txokolatada. Jardunekin jolasak eta tailerrak ere egingo dituzte ostean. Eguna amaitzeko, kantu afaria dago, 21:30an. Domekan, 07:30ean, San Antonion txalapartariak arituko dira. Ostean, txokolatada eta salda-jana, trikitilariak alaituta. 19:00etan, euskal film laburrak emango dituzte Agorrosinen.

Elgetan, Korrika Txikia egingo dute, eta umeendako ikuskinak egongo dira bariku arratsaldean zehar.

MUSIKA > EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Umeei musika klasikoa erakusteko 'Tempo di Martxa' autobusa egon da Bergaran

Mariaren Lagundia ikastolako patioan egon zen Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren autobusa, pasa den egubakoitzean

E. B. > BERGARA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 25 urte betetzen ditu aurten, eta, hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horietako bat *Tempo di Martxa* autobusa da. Gurpil gaineko musika gela bat da, eta gaztetxoek musika klasikoa eta garaikidea zein euskal konpositoreen lanak ezagutzeko aukera daukate. Bergaran, pasa den egubakoitzean egon zen, Mariaren Lagundia ikastolako patioan, eta musika eskolako ikasleek bertan sartu eta gozatzeko aukera eduki zuten.

ENTZUN ETA IKUSI

Autobus ibiltariko arduraduna Oihan Vega bergararra da. Musika klasikoa helduen eskura dago egun; ume eta gazteak ahaztu egin dira. Errealitate horri buel-



INSTRUMENTUAK Musika tresnak ezagutu zituzten umeek.

JOSETXO ARANTZABAL

ta eman gura diote Orkestra Sinfonikoko arduradunek, eta horretarako aukera eduki zuten egubakoitzean autobusean sartu ziren ume eta gaztetxoek.

Mikel Cañada pedagogoak egitasmo horretarako espresuki diseinatutako programa interaktiboa erabiltzeko aukera dute

autobusean sartzen direnek. Genero, garai eta estilo ezberdinetako hogeita hamabi obra entzun daitezke; horietatik hogeitaz, musikagile euskaldunenak. Orkestran erabiltzen dituzten hainbat instrumentu geratutik ezagutzeko aukera ere ematen du *Tempo di Martxa* autobusak.



KANPORAKETA Araian sailkatu zen Manex Agirre finalaurrekorako.

ABE

BERTSOLARITZA > ARABAKO TXAPELKETA

Manex Agirre hirugarren izan zen lehen finalerdian

Finalisten izenak Aramaioko finalerdiaren ostean jakingo dira, datorren domekan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARAMAIO

Zigoitian jokatu zen, domekan, Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa. Areto bete, bertsolariak saio orekatua egin zuten, eta izan zen aukera arrazoi bitxiak entzuteko.

Manex Agirre aramaioarra izan zen saioan ibarreko ordezkaria. Hamarreko txikian hanka-sartzeren bat egin arren, hamarreko handian eta bakar-ka saio politak borobildu zituen.

Amaieran, Zigor Enbeita izan zen lehenengo, 328,5 punturekin; Iñaki Viñaspre, bigarren, 323,5 punturekin; Manex Agirre, hirugarren, puntuetan berdinduta; eta Izar Mendiguren (319,5), Ruben Sanchez (309) eta Felipe Zelaieta (294) gero.

Datorren domeka arratsaldean, Aramaion jokatu den bigarren finalerdia arte itxoin beharko da finalista guztien izenak jakiteko.

TANTARIK EZ ALFERRIK!

Ura ezinbestekoa zaigu. Ura, ordea, baliabide mugatua da. Horretxegatik, arduraz kontsumitu behar dugu. Izan ere, ura zaintzea, geroa bera bermatzea baita. Biek ere, ura zein geroa, gure konpromisoa eskatzen dute. Gure esku dago, beraz.

Martxoaren 22a
URAREN NAZIOARTEKO EGUNA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net

Gure esku dago
está en nuestras manos

MUSIKA > KEIKE, UNE ETA KAUTA, OÑATIN

Aurrez sortutako ikusminari erantzuna ematen asmatu zuten Une taldekoek

Aitor Uriartek Une taldea eta publikoa konektatzeko ahalegina egiten du kontzertuetan

Herriko gaztetxoek Kauta taldearekin gozatu zuten gehien; abestietan parte hartu zuten

A. G. > OÑATI

Egubakoitzean Oñatiko gaztelekuan, Keike, Une eta Kauta taldeen kontzertua egon zen. Aipatzeko modukoa, hiru taldeen soinua: oso ona izan zen. Bakoitzak teknikari propioa eroan zuten, eta igarri zen emaitza. Musikaz hobeto gozatzeko aukera eman zuten soinuaren kalitateak.

SOINU ONA

Keikek eduki zuen kontzertua zabaltzeko ardura, eta primeran bete zuen zereginarekin. Hasieratik, indartsu ekin zitoten lanari, eta jendeak saltoekin erantzun zion taldearen ahaleginari. Gitarrekin asko jokatzeko du taldeak: batzuetan, bortitzak, eta beste batzuetan, lasaiak. *Oinetan kea* diskoko abestiek aho zabalik uzten dute jendea.

Uneren txanda etorri zen jarraian. Ikusmin handia zegoen herrian, Aitor Uriarte abeslaria oñatiarra delako. Musika nahiko hotza egiten dute, metal moderno-edo, melodikoa. Kalitate aldetik, emaitza bikaina dau-

ka taldeak, soinu oso ona daukate, eta exekuzio ona ere. Begiak itxi eta diskoa entzuten egotea bezala dira kontzertuak.

Baina musikariak estudioara ohitutakoak dira. Ez dakite publikoarekin konektatzen; begiratu ere ez diete egiten taula azpian daudenei. Hor hasten da Uriarteren lana. Oñatiarrak bere esperientzia erakusten du, eta taldeari tiraka dabil, publikoarekin konektatzeko ahaleginetan. Euskal ahots onenatarikoa dauka, eta nahi duena egiten du horrekin. Orain, gainera, gitarra gabe dabil, eta publikoarekin lotzeko erraztasuna da hori. Eta betetzen du helburua, gainera.

Kontzertua amaitzeko lana Kautakoek egin zuten. Aldaketa nabarmena izan du taldeak: laukote izatetik hirukote izatera pasatu dira, eta, lehenengo diskoan metala bazen protagonista, bigarrenean, zertzelada batzuk bakarrik agertzen dira. Rockera salto egin du taldeak, eta abesti batzuetan hardcorea sartzen dute, indar handiarekin.



URIARTE Oñatiarraren esperientzia argi geratu zen publikoarekin konektatzeko orduan.

JOSETXO ARANTZABAL

Talde horren musikaren giltza, baina, errepikan dago. Izan ere, melodia eta letra gogorraerazak erabiltzen dituzte euren abestietan.

Oñatiko gaztetxoak aurreko asteetan urduri ibili dira, kontzertua noiz iritsiko, modan dagoen taldea da-eta Kauta. Abestiak buruz dakizkitez, eta abestietan

parte hartzen dute kontzertuetan. Baxu-joleak arazo tekniko bat eduki zuelako geratu beharra eduki zuten, baina bestela, maila ona erakutsi zuen Kautak.

MUSIKA > ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN TOPAKETAK

XX. Abesbatzen Topaketak bete egin zuen Uarkape

Bederatzi abesbatzak parte hartu behar zuten, baina bat ez zen etorri

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Arrasateko Uarkape pilotalekua bete-bete egin zen zapatu arratsaldean: arrazoia, XX. Debagoieneko Eskola Arteko Abesbatzen Topaketak. Abesbatzen inguruko ekintzak gehitzea eta zaletasuna plazaratzea dira helburuetako batzuk; kantuari garrantzia ematea, azken finean, eta herenegun, behintzat, lortu zuten, 1.000 lagun inguru joan zen-eta abesbatzak entzuterara.

MAILA ONA OROKORREAN

Bederatzi abesbatza aritu behar ziren zapatuan Uarkapen: Arizmendi ikastolako lau abesbatza, Arrasateko Mesedeetako Andra Mari ikastetxekoa, Aramaioko San Martin Herri Eskolakoa, Oñatiko Txantxiku Ikastolako, Ermuko Anaitasuna Institutu-

koak, eta, gonbidatu legez, Ganbara Txiki abesbatzakoak. Baina Ermukoak ezin izan ziren etorri, gaixotasun bat tarteko.

Maila ona erakutsi zuten abesbatzek: denetarik entzuteko aukera egon zen. Aukeratutako kantuak alaiak izan ziren, mugimenduz betetakoak. Txikitatik ikusten da nola ohitu dituzten abesteko postura onak hartzen eta eszenatokian egoten. Sorpresa arrasatearrek eman zuten, euskal himnoekin egindako nahasketarekin.

Benetan ondo aritu zirenak gonbidatuak izan ziren, Ganbara Txikikoak. Eskainitako kantetan, ahotsen kalitatea erakutsi zuten. Eboluzioa garbi ikusi zen.

Sarrerekin lortutako diruaren %25 Saharako herriari laguntzeko bideratuko dute.



GANBARA TXIKI Maila bikaina erakutsi zuten oñatiarrek kantuak koreografiatuz lagunduta.

IRATI AGIRREAZALDEGI



ZUHAITZ DE INDA

The 5 Twisters: "Erraz entzun daitekeen lana dela uste dugu"

Zortzi abestik osatzen dute The 5 Twisters taldearen diskoa; Azpeitiko Urrestilla auzoan grabatutako rock-and-rollera da

Musika klasiko samarra egiten dutela diote, baina, taula gainean, 'The Twisters' abestiarekin, maskarak jarrita agertzen dira taldekideak

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

The 5 Twisters taldea arrasatearra da. Bost kidek osatzen dute, eta rock-and-rollera egiten dute. Egubakoitzean, Eddie & the Hot Rods taldearekin joko dute 3.60 aretoan, eta diskoa aurkeztuko dute, bide batez.

Zeintzuk osatzen duzue The 5 Twisters taldea?

Bost lagun gara: Jokin (ahotsa), Iago (gitarra), Joseba (gitarra), Xabi (baxua) eta Beñat (bateria). 2004. urte hasieran hasi ginen elkarrekin proiektu honetan.

Nondik dator izena?

Hainbat izenen artean pentsatzen ibili ginen, baina ez zitzaigun bat ere gustatzen. Ingelesezko hitzak pentsatzen ibili ginen, eta, halako batean, *twister* hitza

okurritu zitzaigun. Tornadorea esan nahi du, eta gustatu egin zitzaigun. Bost garenez, The 5 Twisters jartzea erabaki genuen.

Izena zuen izaerarekin lotuta dagoela uste duzue?

Izena gustatu egin zitzaigulako jarri genuen. Baina apur bat identifikatu ere egiten gara berarekin, bai.

Ze musika egiten duzue?

Rock-and-rollera egiten dugu. Guztioi gustatzen zaigu rocka, baina mota ezberdinetakoa. Jokinnek, abeslariak, adibidez, rock klasikoagoa du gustuko, lehenengo taldeak-eta. Guztion gustuak islatzen dira gure abestietan. Baina, azken finean, musika klasiko samarra egiten dugu.

Diskoa non grabatu duzue?

Gure lagun batzuek euren diskoa Azpeitiko Urrestilla auzoan grabatu zuten, eta emaitzarekin gustura zeudenez, guk ere bertara jotzea erabaki genuen. Josu Zubizarretarekin grabatu genuen, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Lehenengoan atera zitzaigun ondo. 500 kopia egin genituen, eta ia-ia guztiak saldu ditugu.

Zeinek egidako abestiak dira?

Taldekideok egiten ditugu: Iagok eta Jokinak. Espainolez eta ingelesez ditugu abestiak, errazena egiten zaigulako. Idazten hasi eta espainolez ateratzen zaizkigu hitzak.

Euskaraz egiten dugu gure artean, eta euskaraz egindako abestiren bat egiteko gogo daukagu, baina, orain arte, ez gara jarri horretan.

Abesti gehienetan, emakumea aipatzen duzue.

Emakumeak oso gustuko ditugulako izango da, beharbada. Abesti guztien gaiak ez dira emakumearen gainekoak, baina, ez dakigu nola, idazten ditugunean, beti emakume bat agertzen zaigu abestietan.



Rock klasikoari ukitu berezia

Azpeitiko Josu Zubizarretarekin grabatutako diskoan, zortzi abesti aurki daitezke. Gaztelaniaz eta ingelesez daude hitzak; euskara falta.

Rock-and-rollera egiten dute Arrasatekoek; estilo klasikoan, gainera. Ez da estilo berritzailea. Baina abeslariak sartutako perkusioak ukitu berezia ematen dio musikari.

Abesti guztietan ez bada ere, gehienetan emakumea agertzen da tartean.

Erritmo biziak ditu diskoak, eta erraz entzuteko moduko musika da *The 5 Twisters* taldearena.

Edurne Burgaña

Diskoa erosi, play sakatu, eta zer da entzungo dena?

Zortzi abestik osatzen dute diskoa. Modu batean, klasikoak dira, gainera. Batzuk gogoraerrazak dira, baina badaude gustatzeko hain errazak ez diren abestiak ere. Hala ere, erraz entzun daitezkeen lana dela uste dugu.

Musika klasikoa dela diozue. Eta gero, taula gainean maskarekin agertzen zarete.

Kontua da, Jokin Mexikon egon zenean, maskara erosi zuela, eta gustatu egin zitzaioela. Eta influentzia kontua ere bada: gustuko dugun talde batekoak maskarekin azaltzen dira kontzertuetan. *The twister* abestian probatzea erabaki genuen, eta orain, abesti hori jotzen dugun guztietan, maskarekin agertzen gara. Abestiaren zati bihurtu da.

Datorren egubakoitzean, kontzertu garrantzitsua daukazu 3.60an.

Eddie & the Hot Rods taldearekin joko dugu. Talde handia da, eta aukera bikaina edukiko dugu. Gogo handia daukagu 3.60 aretoan jotzeko, orain arte ez dugu jo eta; gainera, talde garrantzitsu batekin egingo dugu.

astea GOITBn

Astelehena, 19

Martitzena, 20

Eguaztena, 21

Eguena, 22

Egubakoitza, 23



> Oñatiko duatloia 'Harmailatik' programan 21:15

Astero bezala, asteburuko emaitzak jakinaraziko dizkigu *Harmailatik* saioak, eta Oñatiko duatloiarite berezia eskainiko dio gaurkoan.




> Aktualitateari errepasoa 'Berbaire' saioan 21:15

Arrate Landa, Urko Lopez (argazkian), Mikel Lezamiz eta Larraitz Ugarte izango dira *Berbaire* saioan politikaz eta gizarteaz berba egiteko.



> Osinalde bertso txapelketa ezaguna 21:15

Osinalde txapelketako lehen kanporaketa eskainiko da gaur telebistan. Datozen eguaztengan, ondorengo saioak eskainiko dira.



> Oi! musikaz blai 'Musikantoi' programan 21:45

Ixone Serranoren eskutik Oi! musika izango da nagusi gaurko saioan. Arkada Sozial, Zakarrak eta Deskontrol taldeak ere izango dira.



> Miren Azkarate izango da 'Ilunpean' saioan 22:15

Orainoan, Miren Azkarate Kultura sailburu eta Jaurlaritzako bozeramailea elkarriketatuko du Oihana Elortzak *Ilunpean* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 Hitz bitan.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 MKT.
16:00 Gatza ta berakatza.
16:15 Jazmina.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta Lur.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Musikantoi.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ikusmira.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmailatik.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak
16:15 Ikusmira
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
17:47 Ilunpean.
18:15 MKT.
18:30 Gatza ta berakatza.
18:45 Albisteak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea
22:15 Harmailatik.
22:45 Berriak.
23:15 Hitz bitan.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta Lur
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Musikantoi.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Bertso saioa.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta Lur.
00:15 Emisio amaiera

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Bertso saioa.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Teknopolis.
16:15 Ikusmira
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa .
18:15 Teknopolis.
18:45 Albisteak.
19:15 Gatza ta berakatza.
MKT.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Musikantoi
22:15 Didjeridu.
22:45 Berriak.
23:15 Erreportajea.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musikantoi.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Hitz bitan.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Erreportajea.
18:15 Bertso saioa.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Hitz bitan.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> 'Igo autobusera!' gurekin egunero 10:00-12:00

Astelehenean, Oskar Elizburu, Arrasateko Erdu AEK-ko zuzendaria, elkarriketatuko dugu *Igo autobusera!* saioan. Korrikaren prestaketaz, kilometroen salmentaz, ekitaldiaz eta laguntzaileez egingo du berba.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarriketak
Korrikaren jarraipena
Lorategiaren geltokia
BAZ geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
17:15 Zorion agurren tartea (errepikapena)

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu
Aste osoan barrena egindako elkarriketaren gainontzeko edukien laburpena

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu

gertutik



Itxaro Zubillaga
Kazetaria

"Ez naiz telebistan ematen duen bezain pertsona bihurria"

GOIENKARIA > BERGARA

Itxaro Zubillaga Aretxabaletan jaio zen eta kazetaritza ikasketak egin zituen EHUn, Leioan. Arrasate Telebistan hasi zen lanean eta *Aretxagazeta*-n ere aritu zen. Gerora, ETBko hainbat saiotan ikusi dugu: *Jaiak*, *Lo que faltaba*, *Bertatik Bertara*, eta abar. Egun, *Pásalo* saioan egiten du lan.

Bihurria dirudizu pantailan. Hala zara, benetan?

Ez dut uste. Telebistan, normalean egiten ez dituzun gauzak egiten dituzu, erreportaje bat aurrera atera behar duzulako-edo, baina ez dut uste ni gero bihurria naizenik.

Nola moldatzen zara hobeto, euskaraz ala espainolez?

Bietan ondo. Salto handia izan zen *Jaiak* saiotik pasa nintzenean *Lo que faltaba*-ra. Dena espainolez zen, eta nik betidanik euskaraz egin izan nuen. Orain, ordea, ondo moldatzen naiz. Erosoago euskaraz, baina espainolez ere moldatzen naiz.

Asteon aldizkarian ere parte hartu zenuen. Nola sortu zen?

Euskal prentsa bultzatzeko asmorekin sortu zen. Hitz egiten zen gai desberdinen inguruan, baita telebistaz ere, eta euskara ere bultzatzen zuen. Pentsatzen dut ekonomikoki porrot egin zuela.

Bertatik bertara-ko anekdotarik baduzu?

Oso dibertigarriak ziren, adibidez, kirolariei jartzen genizkien erronkak. Nazabal aizkolariari *hula-hop*-a eraman genion, eta ia ordubete egon ginen, berak ezin ziolako uztaiari buelta eman; barregarria izan zen. Aimar Irigoien harri-jasotzailea josten jarri nuen, eta uste nuen oso txarra izango zela, baina sekulako abilitadea zuen gazteak. Txorakeriak ziren, eta momentuan barregura sortzen zuten; telebistan oso politak irteten ziren.

Zer asmo dituzu gerora begira?

Urte askotan, *Pásalo*-n jarraitu nahiko nuke, baina ez daukat proiekturik. Niri gustatuko litzaidake kirol erredakzio batean lan egitea; hala ere, *Pásalo*-n oso gustura nago. Erreportari izatea asko gustatzen zait, eta zabalik nago eskaintza berrietara.

asteko hitzorduak

Hitzaldia



OÑATI
> 'Sorginak Euskal Herrian' izeneko hitzaldia izango da martitzenean

Bihar, martitzena, Toti Martinez de Lezeak Euskal Herriko sorginen inguruan egingo du berba. Hitzaldia Oñatiko Errekalde Herri Eskolan izango da, eta arratsaldeko seietatik aurrera izango, da interesa duenarentzat.

Zinema



ESKORIATZA
> 'Bagdad Rap' dokumentala izango da ikusgai Inkernu tabernan

Etzi, eguaztena, hilak 21, *Bagdad Rap* izeneko dokumentala izango da ikusgai gaueko 22:00etan Inkernu tabernan. 2003an gertatutako Irakeko gerrari buruzko filma da hori, eta bertan izan ziren brigadisten bizipenak kontatzen ditu.

Musika



ARRASATE
> III. Udaberriko Musikaldia izango da martxoaren 24tik apirilaren 1a arte

Hirugarren urtez, Udaberriko Musikaldia antolatu dute Arrasaten. Zapatuan, Artajonako Banda, izango da Amaia Antzokian, eta domekan, berriz, J.W. Jansen Kulturateko areto nagusian. Biak 20:00etan izango dira.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Inaugurazioa
eta gala
Debagoienean

Aste bukaera mamitsuaz izan da gurean. Egubakoitzean, bi ekitaldi potolo izan genituen ibarrean. Batetik, Arrasateko **Kultur**ate kultura etxea inauguratu zuten. Bertan izan zen ibarreko jende "guapoa". Bestetik, Elgetan, Euskal Herriko Mendi Federazioaren gala ospatu zen. Han ere, ibarreko eta Euskal Herriko jende ospetsua batu zen. Lehenengoan, pintxoak egon ziren, baina bigarrean, ez. Edo, behintzat, nik ez nituen ikusi. Nork jango ote zituen?


"Gipuzkoako
ahaldun nagusia,
Txabarri, argalduta
ikusitua genuen
Kulturaten"

Ez dakit Txabarrik, ahaldun nagusiak, zenbat jango zituen. Izan ere, argalduta ikusi genuen Kulturaten, argalduta dabil. Gure belarrietara iritsi da Coca-Cola utzi ote duen zurrumurrua.


Elgetan, gainera, arazok izan zituzten, tabakoa dela eta ez dela. Badirudi norbaiti ez ziola graziarik egin mendizaletasunaren galan jendeak erretzea. Bada, protesta egin zuten.

Oñatin, **Juan Ibarrondok**, 27 urte eta gero, banda uztea erabaki du, eta lagunak omenaldia egin zioten atzo. Egubakoitzean, berriz, **Euskadiko Orkestrako** autobusa etorri zen Bergarara. Joaterakoan, baina, arazoak izan zituen. Bidekurutzeta kaleko kurban ez aurrera ez atzera geratu zen autobusa denbora luzez.

asteburuko albuma



Oñatiarrak Gipuzkoako Txapelketan. Aloña Mendi kirol elkartearen esku utzi du Foru Aldundiak Gipuzkoako Esku Pilota Txapelketako azken fasea antolatzeko ardura. Martxoan, zapatuetan, jokatu dira partiduak, eta Debarroko, Goierriko, Urola-Kostako, Donostialdeko eta Oarso-Bidasoako taldeek hartu dute parte. Oñatik ere badu ordezkariarik; Debarroko Txapelketa irabazi ostean, Alebin mailako mutikoei Gipuzkoakoan dihardute.



Umore gaua. Debagunek antolatuta, umore gaua izan zen egubakoitzean, Bergarako Pol-Pol tabernan. Jendez gainezka izan zen taberna, eta, Oihan Vegak umorez gidatutako jaian, Jon Plazaolaren baka-rrizketa, Guillermo Seguiolaren txisteak eta Aretxabaletako KNK taldearen antzerkia izan ziren. Lehiaketa Oreretatik etorri zen partaide bakarrak irabazi zuen.



Haurren lasterketa. Egoki taldeak antolatutako proban, Elgetako gaztetxoek korrika jardun zuten domekan. Aurre benjamin mailako hamar gaztetxok ibilbide txikia egin zuten, eta Aitor Elkoro izan zen helmugan lehena. Benjamin mailan, zortzi neska eta zortzi mutil ibili ziren lasterka, ibilbide luzeagoan. Nesketan, Ibane Zubiaurre izan zen lehenengo, eta mutiletan, Jon Ugarteburu. Denek jaso zuten saria, eta hamaitakoa ere egin zuten.



Aitajaun-amandreen eguna. Oñatiko Elkar-Hezi ikastetxean, Haur Hezkuntzako ikasleek aitajaun eta amandrendako jaialdia egin zuten egubakoitzean. Umeei eskolan egindako ekintzen argazkiak ikusi ostean, haurren kantu eta dantzekin gozatu zuten gero. Luntxaren orduan, txikienei eskuz egindako opariak eman zizkieten aitajaun eta amandreei.



Gaztetxeko urteurrena. Elgetako gaztetxeak 11. urteurrena ospatu zuen zapatuan. Trikitixa doinu lagundutako poteoaren ostean, 50 lagun inguru elkartu ziren bazkaritarako eta, bazkalostean, Jokin Labayen arrasatearrak eta Beñat Ugartetxea mallabiarrek jardun zuten bertsotan. Iluntze partean ere, herriko trikitilariak girotu zuten poteoa. Gauean, Edan eta Apartheid taldeekin kontzertua izan zen, gaztetxean bertan, eta jai goizaldera arte luzatu zuten. Gaztetxe-koak berriro lanean hasi beharko dira, beste urte bat gehiago betetzeko bidean.

hildakoak

• **Pako Arregi Agirre.**
Oñatin, martxoaren 14an. 65 urte.

• **Jesusa Balantzategi Beloki.**
Arrasaten, martxoaren 15ean. 83 urte.

• **Maria Isidra Aizpurua Beristain.**
Bergaran (Osintxu), martxoaren 16an. 88 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €.**

GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.



PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako
ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

zorion agurrak



BERGARA
Aitor Esnaola
Martxoaren 17an, 6 urte egin zituen. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



BERGARA
Paula Palacios
Martxoaren 17an, urte-betetzea izan zuen. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



BERGARA
Olatz Olañeta
Martxoaren 17an, 7 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bana, aitaren, amaren eta Aitorren partetik!



BERGARA
Jon Lazkano Palacios
Martxoaren 19an, 2 urte. Zorionak, txapel-dun! Familia guztiaren partetik, bihotz-bihotzez, muxu handi-handi bat. Aupa, Jon!



ARRASATE
Jusséf Sanchez
Martxoaren 19an, 11 urte. Zorionak, zure izeba, Achraf, Ichraq eta, bereziki, Hamit eta Didoren partetik!



OÑATI
Ekhiñe Mendi Altube
Martxoaren 20an, 7 urte. Orain bezain zoriontsu izaten jarraitu. Maite zaitugu, pilapila patata tortilaaa...! Senideak eta lagunak.



BERGARA
Naiara Azkarate
Martxoaren 20an, 7 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat! Gurasoak eta ahizpa Lierni.



ARRASATE
Haizea Fernandez Loiti
Martxoaren 21ean, 13 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



ARETXABALETA
Urko Garcia Urreta
Martxoaren 22an, urte-bete. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxeko guztien partetik!



ARETXABALETA
Iker Perez
Martxoaren 22an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko eta lagun partetik!



ARRASATE
Amets Arexolaleiba
Erretolatza
Martxoaren 22an, arrasatear honek 3 urte beteko ditu. Zorionak eta patxo haundi bat, etxekuen partetik!



ARETXABALETA
Gorka Zumalde
Martxoaren 24an, 6 urte. Zorionak, pirata, eta ondo-ondo pasatu eguna! Lagunak.



ARETXABALETA
Amaia Irure
Martxoaren 24an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun partetik!



OÑATI
Mikel Bengoa
Martxoaren 24an, urte-betetzea. Zorionak eta patxo bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE
Iria Fernandez
Martxoaren 24an, 5 urte. Zorionak, gurasoen eta lbaia anaiaren partetik!

jaiotakoak



Ixone Nogales Martinez
Arrasate > 2,680 kilo. Martxoaren 8an. Gurasoak: Laura (Arrasate) eta Roberto (Arrasate). Argazkian, Ixone aitaren eta amarekin.



Lander Garai Markuleta
Oñati > 3,300 kilo. Martxoaren 11n. Gurasoak: Bego (Oñati) eta Jose Ramon (Oñati). Argazkian, Lander amaren besoetan agertzen da.



Aitor Sanchez Agirrebeña
Bergara > 3,750 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Jose (Bergara). Argazkian, Aitor arreba Izarrekin agertzen da.



Jon Iñigo Ugarte Zubia
Oñati > 3,295 kilo. Martxoaren 12an. Gurasoa: Arantzazu (Oñati). Argazkian, Jon Iñigo jaioberria ama Arantzazuren besoetan agertzen da.



Eneko Bragado Diaz
Arrasate > 3,270 kilo. Martxoaren 14an. Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Ignacio (Arrasate). Argazkian, Eneko bakarririk azaltzen da.



Asier Baena Mendizabal
Arrasate > 3,430 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Maite (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, umea amama Paularekin eta anaia Andonirekin.



Irati Mora Gimenez
Arrasate > 2,500 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Naroa (Arrasate) eta Orkuides (Dominikar Errepublikar). Argazkian, Irati gurasoekin.



June Soto Axpe
Antzuola > 2,840 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Nerea (Arrasate) eta Diego (Bergara). Argazkian, June jaioberria amaren besoetan.



Ibone Rodriguez Barcala
Bergara > 3,490 kilo. Martxoaren 16an. Gurasoak: Estibaliz (Bergara) eta Miguel (Bergara). Argazkian, Ibone jaioberria aitarekin ageri da.



Sabir eta Sidra Asgharren umea
Elgeta > 4,240 kilo. Martxoaren 17an. Gurasoak: Sidra (Elgeta) eta Sabir (Elgeta). Argazkian, umea. Edizioa itxerakoan, gurasoek erabakitzeke zuten umearen izena.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENEKO GOIENKARIAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emalazu ezusteko ederra!

Jose txo Lizartza > Kirol kazetaria

"Pilotariak eroso daude fraka motzetan ere"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Pilota partiduak ematen ikusi eta entzuten dugu asteburuetan Jose txo Lizartza. Euskaltegiko irakaslea ere izandakoa da. Fraideen tomate poteekin egiten zituen lerak, trineoak, Arantzazun.

Leitza eta pilota. Lehenengokak bigarrena eskatzen duela dirudi.

Egia da pilotarekin oso lotuta dagoela Leitza. Neuk ere makina bat jolas egin dut pilotan, eta jokatu ere bai, zenbaitetan.

Zaila egin zitzaizun pilota espainolez ematen hastea?

Ez horrenbeste. Aurretik, Donostiako Herri Irratian ere pilota partiduak ematen nituen euskaraz eta espainolez, bietara.

Nork lagundu zizun pilotaren hizkuntza itzultzen?

Niretako, pilota da kirolik zaharrena. Hemerotekara jotzen baduzu, kronika asko daude, aspaldikoak, asko, espainolez idatzita daudenak. Orain ere asko gustatzen zait noizean behin Koldo Mitxelenara joan eta hango

hemerotekan aspaldiko kronikak irakurtzea.

Telebistan ibili aurretik, irratian ibilitakoa zara.

Donostiako Herri Irratian eta Euskadi Irratian ere ibili izan naiz, bai. Gustatzen zait irratia.

Euskadi Irratian euskaraz entzun zen lehen ahotsa zeurea zen. Zer esan zenuen?

Nik egiten nuen eguneko lehen saioa, eta horrela tokatu zen. Hala ere, ez dut gogoan zer esan nuen.

TEST-A

Herria: Leitzakoa naiz, baina Donostian bizi naiz. **Adina:** 51 urte.

Zaletasunak: Ingalaterrako futbola jarraitzen dut; musika eta hemerotekan aztertzea ere gustatzen zait. **Sukaldea:** Etxean tokatzen zait egitea. **Brikolajea:** Askotan esan behar didate zerbait egiteko, baina moldatzen naiz azkenean.

Xabier Lete: Izugarri gustatzen zait. **Izarren hautsa** egin duen lanik onenetakoa da. **Motorra:** Donostian erabiltzen dut.

Nola gogoratzen dituzu Arantzazun egin zenituen urteak?

10 urte nituela joan nintzen. Gogoan dut han ere irakasle batzuek biolentzia fisikoa erabiltzen zutela. Bota egin ninduten handik.

Igarri zenuen Arantzazu eta kulturaren arteko lotura?

Bai. Idazle batzuk eta Gandiaga bera ere hantxe ezagutu nituen. Bestalde, domeka goizetan ikurrin batzuk agertzen ziren haitzetan, eta lehen manifestazioen keinuak ere ezagutu nituen.

Denak ohitu dira, honez gero, frontoi berdeak ikusten?

Bai, baina ondo kosta zitzaigun aldaketa hori egitea. 1993-1994 urteak ziren. Toki batzuetan, guk ordaintzen genien pintura, frontoi berdez pintatzeko. Kostata irabazi genuen borroka hura. Beste aldaketa batzuk ere gerta daitezke.

Pilotariak fraka motzetan?

Eta zergatik ez? Askok horrela entrenatzen dute; eroso dauden seinalea da hori.




LIZARTZA Eguenean etorri zen Jose txo Lizartza Arrasatera.

O.E.

www.goiena.net

Emakume bat bizirik zuten makinetatik deskonektatu dute, berak eskatuta. Ados zaude?



biharamuna

Iñigo Biain


Zazpiak bat, zazpiak nafar

1512tik, Espainiako eta Frantziako errege-ek hala erabaki zutenetik, Euskal Herria (euskara daukan herria) noraezean ibili da urte gatazkatsu askoan. 500 urte betetzera doazen honetan, eta larunbateko Iruñeko "manifestaxaldia" ikusita, proposamen politiko bat bururatu zait (nafarren bati lapurtutakoa, seguraski) gure euskal herri honi etorkizun argixeago bat emateko: egin gaitezen guztiok nafar! Eta zergaitik ez? Oñatiarrok badaukagu anxio kontutan esperientziarik, izan ere, 1149tik 1845. urterarte ez baikinen ez gipuzkoar (geografikoki hala kokatuta egonda ere), ez bizkaitar (mintzai-



rak hala adierazten bazuen ere) ezta arabar ere izan (errepide bakarrak hara eramaten bazuen ere). Oñatiar hutsak izan ginen espainiar erregeen menpe, baina euskaldunak ere bai. Zergatik ez ikasi ikasgai hau, eta zazpi lurraldeen auzira eraman? Nafarroa ezin dela bake prozesuan erabili? Zazpi lurraldeen batura "vascoa" ez dela bideragarri? Ongi da. Ezaba ditzagun mapetatik sei lurralderen mugak eta izenak, onar dezagun gure ikurrina ez dela guztiona (Jaungoikoa eta Lege Zaharraren jarraitzaileena baizik), eta egin dezagun guztiok Nafarroarekin bat. Gora Nafarroa berria! Gora zazpiak nafar!

eguraldia



MINIMOA
+01

MAXIMOA
+06

Arratsaldetik aurrera, elur-kota 300-500 metrora jaitsiko da. Egu-na euritsua izango da; noizbehinka, ekaitzak izango dira.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZA**

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruz) | **DUB**
Egumero (Hertzainak) | **EGUMERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Elos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itzi) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Iargia (Ken7) | **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teillatu (Itzi) | **LAUTZ**
Laztana (Lutzen) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loreboa (EKXIXU) | **LORE**
Marea Gora (Itzi) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**
No time for love! (Hertzainak) | **NOTIME**

Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarri Sarri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen leizean (Exkixu) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Trikitixa
Bexameka ta pastela (Maixa ta Ixar) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**
Kupela (Epele eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdara (Alaitz / Maider) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | **TXANPON**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS	EHZ	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURR3	I ORA	BABAK
BASAJAUN	IKURR5	LAU2	ARRANAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-za. / * Movistar: deitu 609-za.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurriari egin ditzaitezke abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com